



ELKARRIZKETA: RAFAEL FERNANDEZ, ENPRESARI ETA MARGOLARIA

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
martxoak 17  
488. zenb.



## Esperientzia trukatzeko bisitan

IKUSPEGIA: IKER EZPELETA • EUREN IKUSPUNTUTIK: IBON ANTERO  
ORAIN ETA HEMEN: ELGEA • KULTURA ELKARRIZKETA: MIKEL ARGOTE

# Zeramika, arte unibertsala



**OMU**  
**ZERAMIKAK**

**Biltegia eta bulegoak:** Meatzerreka, 6  
Tel./Faxa: 943 79 14 28  
ARRASATE

**Erakusketa:** Ignacio Zuloaga, 4  
Tel.: 943 79 07 20  
ARRASATE

**Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan**

# Mugi gaitezen!

**A**urreko hilean kooperatiben saihesbidea izan nuen hizpide. Oraingoan gai hura orokortu eta kokatu beharrean nago. 2.000 milioi pezetako —nik emandako datua zahartuta zegoen, jadanik— aurrekontu bati buruz ari nintzen. Jo dezagun orain aurrekontua ehun bider handiagoa duen beste errepide batera, “Astopistara”, hain zuzen ere. Noski, arazoa ehun aldiz korapilatsuagoa dugu, ehun aldiz okerragoa eta ehun aldiz zentzu berekoa. Baina arazoaren muina berbera da, autoa eta hori bultzatzen duen gizarte antolakuntza desarrollista: beraz, eta alternatibek ahuntzaren gau erdiko ezgularen balioa ez dutela ikusirik —ez Olandixon, ez “Astopistaren” kasuan — gai hauek eta beste batzuek —eolikak eta beraiekin bat datozen megaproiektu energetikoak, Abiadu-



Iker Ezpeleta

ra Handiko Trena, harrobiak eta azken finean, gizarte antolakuntza desarrollista— jorratuko dituen talde ireki eta parte hartzaile baten eraketa otu zaigu zenbait burubakori. Talde hau asteartero zazpi eta erdietan biltzen da Besaide mendi elkarteko egoitzan. Ateak zabalik dituzue, bai era finkoan parte hartzeko, momentu puntaletarako, zein antolatutako ekintzetan parte hartzeko.

Ni neu behintzat ez nago inolaz ere prest erokeria guztiari itxura berdea emateko. Eta uste dut pausoak eman behar direla erokeriak ezabatzeko bidean. Izan ere, ezin dugu onartu proiektu hauek guztiak aurrera jotzea, zentzu izpirik ez duten heinean. Gutxi batzuen onura eta gehiengo baten miseria eta bazterterako eratu dagoen makineria ekonomikoa gehiago

haztea errotik errefuxatu beharra dago. Zeharo lotzen gaitu eta, multinazional handien interesetara, natura eta baliabideen xahuketa amaigabea erakarriz eta Hirugarren Munduko herrien esplotazio eta sumisioa bultzatuz. Onartezina da ingurugiroaren suntsipena eta gu eta gure bizimodua zuzenean baldintzatzen duten erabakietan, gero eta zer esan txikiagoa izatea. Boterea esku urrietan gelditzen den bitartean, eta botere zentro hauek gero eta urrutiago zein kokatu gabe —nork du benetan boterea?— somatzen direlarik.

Gure bizi antolaketa eta ekonomia propioa eratu nahi dugu. Denon parte hartze zuzena bultzatu. Eskala murriztagoan, zentzudun eta gizatiarragoan, eskura egongo den bizi antolaketa eta ekonomia. Hau da, desentralizatua, behar errealetan eta ez irabazietan oinarrituko dena. Azken finean, gizatiarekin solidario eta errespetuz jokatu duena.

Bultza dezagun, bada, gizarte aldaketa!

Asteartean Besaide elkartean ikusiko dugu elkar. ■

## Asteartero zazpi eta erdietan biltzen gara Besaide mendi elkartean

*“Lehen gure Jaime gogorak Lizarra sortzen lagundu bazuen, agian oraingo Mayor indartsua abertzaleen batasunaren eragile izan daiteke”*

Mikel Irizar

O

### erreklamazio izan zen udaletxean martxoaren 12ko hauteskundeetaz.

1977ko hauteskundeetatik, erreklamaziorik egiten ez den lehenengoa aldia da. Badirudi sistema egokia aurkitu dutela eta errodako datuak ondo daudela. Bi kontsulta izan ziren udaletxean: bi mondragotarrek botoa non eman behar zuten ez zekitelako.

## ITURRI ONETIK

### Txirritxola

Aramaiola euskaltzale talde batek Txirritxola izeneko euskara elkarte sortu du, herrian euskara zuzpertzeko asmoarekin.

Nolatan Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide den Arabako herririk euskaldunenean euskara elkarte bat sortzea? Herritar gehienak euskaldunak dira, baina Siadecok egindako azterketan agertzen denez, 25 eta 50 urte artekoen artean gero eta gutxiago egiten da euskaraz.

Egoera ilun horretan argia egiteko asmoz sortu da Txirritxola euskara elkarte. Bere ardatzean kiribiltzen den kandelari eusten dion oholari deitzen zaio txirritxola Aramaion. Elkarteko lehendakaria Mikel Aranzabal da; lehendakariordea, ostera, Juanito Saizar. Laster egingo dute aurkezpen ofiziala.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Manjé Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publikatzailea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantzazu Loidi. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disaileina:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakilerak:** Monika Belastegi. **Koibonartzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saia, Kar-mele Perez, Iker Ezpeleta, Nekane San Migel. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerutu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maider Osa eta Maddi Trubuelo.

Arrasateko Udalerri laguntzaz  
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntzaz  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Arrasate  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria ..... 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzaileak ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskornatza ..... 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ERREPIDEAK ZIKLOTURISTEN ARRISKU

**B**este jende asko bezala, txirrindularitza maite duen herritar bat nauzue. Arriskuz jositako eta sakrifizio handia eskatzen duen kirol honen zalea naiz. Azkenaldian, zoritxarrez, errepideetan gertatutakoek atentzioa deitu dute. Batzuetan zikloturiston erruz, beste batzuetan aldiz autoen presak eraginda eta beste askotan errepideen egoera txarrak zikloturiston bizia arriskuan jartzen duelako.

Denbora dezente pasa da Arrasate zeharkatzen duen saihesbidea eraiki zutenetik. Gaur bide hori erabat baztertua eta ahaztuta daukagu.

Zikloturistoi ezinezkoa zaigu bide ertzetik ibiltzea, besteak beste txatarra, harri edo kristalekin nonahi egiten baitugu topo. Ondorioz, ezbeharren arriskua asko handitzen da, errepidearen egoera kas-karrak erdiragotik zirkulatze-ra behartzen baitugu.

Bailarako ospital inguruko kaleak erabat apartuta daude, mailaz jositak. Zarugalde kalean ere "Nebraska" tabernaren parean beste horrenbeste gertatzen da. Obrak egiteko kaleak itxi izan direnean bide hauek penagarri gelditu dira. Errepidea porlanezko mendate txikiz betetzen da, zikloturista edo auto gidarien kalterako.

Kexa edo kritika hauekin ez nuke bizikleta maite ez duen inor aspertzetik nahi. Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet hain gustuko dugun kirol honen zaleen ize-nean Arrasate Presseko lan-kideei.

Agur bero bat

Agustin Aranzabal

Jon Otero Uribarren  
(Fontcalent, Alacant)

## ARRASATE ALA MONDRAGOE?

**E**roespexean nago (miriak barne) eta jada lau urte luze ez dudala Arrasaten oinik jartzen. Baina Arrasate Press aldizkaria jasotzen dut. Harrituta nago nola, normala balitz bezela, hasi diren idazten maiz Arrasate beharrien Mondragoe. Biak, era bietan hasi dira idazten, sarritxo bigarren eran. Lehen hori aldizkari honetan ez zuten egiten sekule be ez, beti Arrasate idazten zuten. Ez zait atsegina aldaketa.

Hori orain, Bar a kaldo dauden bitartean, hots, taberna konpak disk zale zarata-

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 17  
• Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 18  
• Azkoaga, Iturriotz
- Igandea, 19  
• Korkuera, Musakola
- Astelehena, 20  
• Irizar, Erguin
- Asteartea, 21  
• Amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 22  
• Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 23  
• Ruiz, Maalako Errabala

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Espero zenituen martxoaren 12ko emaitzak?

Alderdi Popularrak 2.178 boto eskuratu zituen Arrasaten.



**Mari Karmen Serrano**  
(49 urte)  
Etxekoandrea

Bai, espero nituen; ez nuen inongo dudarik.



**Ramon Lopez**  
(65 urte)  
Erretiratua

Sorpresa handia izan da. Alderdi Popularrak inoiz ez du horrelako aldearekin irabazi.



**Jon Nuño**  
(21 urte)  
Ikaslea

Ez nuen espero Alderdi Popularra horrenbeste igotzea.



**Monserrat La Fuente**  
(48 urte)  
Etxekoandrea

Kopuru horiek behintzat ez. Alderdi Popularraren gehiengoa ez nuen espero.



**Alberto Jauregi**  
(57 urte)  
Langilea

Gutxi gorabehera bai, hau da, PPK irabaziko zuela, bai; baina horrenbesteko aldearekin egingo zuenik ez.



**Jose Ramon Urzelai**  
(53 urte)  
Erretiratua

Ez nuen uste horrenbesteko aldea izango zenik.



**Manoli Amador**  
(50 urte)  
Langabea

Gutxi gorabehera bai; ez dut sorpresarik hartu.



**Nuria Fdez. de Arriabe**  
(33 urte)  
Langilea

Ez. Ez nuen uste eta ez nuen nahi PPK horrenbesteko arrakasta izaterik. Gainerakoena agian bai, baina PPrena ez.





**GUBI**  
Ileapaindegia



Otalora 5, 1-B • ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 74

**Buruan dituzun arazoei agur esan**

*CONCEPCION TAMAYO*

**DERMATOLOGO A**

ASEGURUAK

**Maalako Errabala, 23-2A • ARRASATE**

Tel.: 943 77 05 57 • Txanda aurrez eskatu

17

ostirala

■ ZINEA

*El Sexto Sentido*, 19:00 eta 22:00, Alai zineman.

■ S.A. ETA ERASO

S.A. eta *Eraso* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan. Sarrerak 1.500 pezetan, 1.300 aldeztatik aurretik erosita. 22:00.

■ KANTALDIA CORAZON DE ENCINAN

Pepe Extremadura abeslariak kantaldia eskainiko du Corazon de Encina extremaduraren elkartearen egoitzan, 22:30.

18

larunbata

■ ZINEA

*El Sexto Sentido*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ LUDOTEKA IBILTARIA

San Andres Herri Eskolan izango da Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria. 3-12 urteko umeei zuzendua dago. 11:00-13:00.

■ ANTZERKIA MOZAMBIKEREN ALDE

Algara antzerki taldeak *Un follon de Testamento* antzezlan komikoa taularatuko du. Bildutako dirua Mozambikeri laguntzeko izango da. Amaia antzokian, 22:00.

■ MARTIRES DEL COMPAS

Gaur gauean, *Martires del Compas* taldeak kontzertua eskainiko du Bergarako Jam aretoan. 22:00.

19

igandea

■ ZINEA

*El Sexto Sentido*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

21

asteartea

■ ZINEA

*El Sexto Sentido*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman. Ikuslearen eguna.

■ EMAKUMEA HEGO AMERIKETAN

*Emakumeen egoera Hego Ameriketara. Hiru adibide: Peru, Guatemala, Txiapas* izeneko hitzaldia emango du Mundukide taldeak. Monterronen, 19:00.

20

astelehena

■ ZINEA

*El Sexto Sentido*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ EUSKALANEN BATZARRA

Euskalan Elkarteak batzar nagusia izango du gaur. Monterronen, 19:00.

22

asteazkena

■ OSASUNA HIZPIDE

Gaixotasun kardiobaskularrak eta hipertentsioa landuko ditu hitzaldian Alberto Rodriguez medikuak. Eroski Fundazioko Kontsumitzaileen Eskolak antolatuta du. Monterronen, 16:30.

■ EKUADORRI BURUZ

Udaletxeko osoko bilkura aretoan Ekuadorri buruzko hitzaldia izango da. Ekuadorreko Indiar Koordinadorako kidea den David Efen Salazar arituko da gai hori lantzen. Hitzaldia Komite Intenazionalistak taldeak antolatuta du, arratsaldeko 19:00etan izango da.

II. URTEURRENA

UNAI ZUBIKARAI  
AUZMENDI

ZURE LAGUNEN PARTETIK

# 23

## osteguna

### ■ BIZKARRAREN ZAINKETA

Bizkarreko arazorik ez izateko aholku praktikoak emango ditu Amagoia Murua-mendiaraz medikuak. Eroski Fundazioko Kontsumitzaile-aren Eskolak antolatu du. Monterronen, 16:30.

### ■ EKINEN BATZARRA

Ekin Emakumeak taldeak batzar nagusia izango du gaur. Euskara elkartearen egoitzan, 18:30 eta 19:00etan.

### ■ GITARRA KONTZERTUA

Gitarra kontzertua eskainiko du gaur Arrasate Musi-kalek. Bere egoitzako areto nagusian, 19:30.

### ■ ZINE KLUBA

Martxoan, emakumeek zuzendutako filmak eskaintzen ari da Kultura saila. Gaurkoan, Maria Ripoll zuzendariaren *Lluvia en los Zapatos* izango da ikusgai. Amaia antzokian, 21:30.

### ■ HIRU KINTO BILERA

Gaur, ostirala, amaitzen da 60 urte betetzen dituzten emakumeen bilerarako izena emateko epea. Hire liburudendan edo Begoña drogerian eman daiteke izena. Bazkaria 25ean izango da. Egun berean, beste bi kinto bilera daude. Batetik, 1934.koena. Eguerdiko 12:30etan meza izango dute eta 14:30etan, berriz, Udalpe elkarte bazkaria. Izena emateko, jo Bengoa tabernara, martxoaren 22a baino lehen. Egun berean 1937.koek ere bilera izango dute. Hauek ere meza eta bazkaria izango dute, Manolo mesoian. Deitu Pedro Fernandezi (943 79 02 48) edo Jose Riviereri (943 79 10 57), martxoaren 19a baino lehen.

### ■ EMAKUMEEN ESQUAK

Zabalik dago 19ra arte Harresi aretoko Emakumeen Esquak erakusketa. Arrasateko emakumeen arte eta artisautza lanak daude ikusgai. Bisita ordua ondokoa da: lanegunetan 18:00-20:00, eta asteburuetan, gainera, 12:00-14:00.

### ■ UR ETA ZABOR TASAK

Iazko 4. hiruhilabeteko ur eta zabor tasen ordainagiriak maiatzaren 23ra arte ordain daitezke. Ondoren, %20ko gainkargua kobratuko du Udalak.

### ■ LORE GAZTEAKEN BAZKARIA

Apirilaren 15ean bazkaria izango dute Lore Gazteak dantza taldeko kideek. Taldearen 35 urte inguru hauetan partaide izan diren dantzari eta txistulariak ere gonbidatuta daude. Parte hartzeko,

jo Kajoi edo Zeziagarenera, apirilaren 2a baino lehen. Izenematea 3.000 pezetan izango da.

### ■ EZKONTZAURREKO TOPAKETAK

Lau senar-emaztek osatutako talde batek ezkontzeko asmotan dabilzan Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabale-tako eta Oñatiko bikoteentzako topaketak eskaintzen ditu. Arrasateko Iturriotz 43an izango dira, hilaren 20tik 24ra, 20:30. Argibideak, 943 79 17 72.

### ■ MANOS UNIDASEN ERAKUSKETA

Martxoaren 20tik 24ra, Manos Unidas erakundearen *Una Ruta de Solidaridad* erakusketa izango da ikusgai Eskoriatzako Humanitate Fakultatean.

### ■ IKASTOLEN KULTURA ASTEA

Hilaren 20tik 24ra, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastolek Kultura Astea izango dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako hainbat kultura ekintza izango dira arratsaldero.

### ■ MASAJE IKASTAROA

Hilaren 18an hasiko da Mugi zentroak antolatu duen haurrentzako masaje ikastaroa. Araba etorbidea 3n, 11:00.

### ■ ERREFERENDUMA

19an egingo da joan den domekarako aurreikusita zegoen Kanpo Zorri buruzko Erreferenduma. Arrasaten, ondoko tokietan izango da: Arimazubi plazan, Seber Altuberen, Maiatzak 1 plazan, Herriko plazan eta Maalako bidegurutzan.

### ■ MOZAMBIKERAKO LAGUNTZA

Harreman Arrasateko Hirugarren Mundu taldeak bi kontu ireki ditu Mozambikeri laguntzeko: Kutxan, 2101.0024 1001 2298 6177, eta Euskadiko Kutxan, 3035.0002 1000 2003 3659.

Ongi etorri

Ander Llodio Bergaretxe

eta

Zorionak

Amaia • Sabino • Gorka

**USTEAK USTE**

*Non dago garapenaren muga?*

**A**uzitegi Konstituzionalak Itoitz Urtegiari argi berdea eman dio aste honetan. Dirudienez, "baliabide naturalen erabilera arrazionala eta naturaren babesa egokitu zaizkio Itoitzko urtegiari". Nafarroako gobernuak urez beteko du Itoitzeko bailara eta inguruko herrietan bizi direnek euren etxeak nola uperatzten diren ikusteko "aukera" izango dute. Urtetan egin diren salaketa eta aurkako ekintzek ez dute ezertarako balio izan.

Elgeako parke eolikoaren aurka ere hasi dira ekintzak. Joan den larunbatean esaterako, airesorgailuen sei beso erre zituzten. 25 milioiko diru galera sortu omen du ekintzak. Baina zentralak aurrera egingo du; errotaflexak bezala, suak ere ez du ezertarako balio izan.

Proiektuaren aurka daudelako egiten dituzte horrelako ekimenak. Baina badirudi agintariak ez dutela hori uste.

Honelako proiektu handiek tratamendu berezia izan beharko lukete eta onura zenbatekoa den neurtu beharko litzateke, eragiten dituzten kalteekin alderatuz, noski.

Marijo Deogracias



**Jarvinen zorra**

\* Ibon Antero

**S**an Jose de Pire izeneko komunitate hartan bizi zen familiako seme gazteena zen Jarvin. Nekazariak ziren bere gurasoak, komunitate hartako eta inguruko komunitateetako familia gehientsuenak bezalaxe. Egia esan, Nikaragua iparraldean zegoen Condega izeneko herrialde hartan, familia gehienek artoa eta frijolea landuz, izerdiaren truke ateratzen zuten bizia aurrera.

11 urterekin, ezagutzen zituen sokazko instrumentu guztiak jotzen zituen Jarvinek (gitarra, gitarroia, rekintoa, mandolina). Mutiko alaia bezain argia. Condegako kultur taldearen laguntzaz, duela bi urte, musika folklorikoko lehiaketa nazional batera eramane zuten, Managuara. Hura bai poza!! Lehenengo saria irabazi eta gainera bere aitak inoiz erosterik izango ez lukeen mandolina oparitu zioten. Handik hila-bete batzuetara, mandolina haren doinuak alaitzen zituen familia arteko kontuak eta kantuak.

Tamalez aurtengo ikasturtean Jarvinek ezingo dio bere bigarren hezkuntzari ekin. Lehen hezkuntza amaitu ondoren, bere zazpi anai-arrebetatik batek besterik ez du izan herriguneko bigarren hezkuntzako eskolara joateko aukera. Dirurik ez, heziketarik ez.

Zenbat ote dira Jarvinen egoeran dauden gazteak? Hori gutxi balitz, 2000. urterako eskola publikoentzako autonomia plan bat aurreikusi du Nikaraguako gobernuak. Ondorioz, ikasleek ordaindu beharrekoarekin mantendu beharko dira eskolak. Beste era batera esanda, Nikaraguan

ikasteko sasoiak dauden neska-mutilen %50 ezin izango da eskolara joan hurrengo ikasturtean.

Horra hor, hainbaten ahotan entzun dugun kanpo-zorraren beste adibide bat. Hirugarren Munduko herrialdeen garapenerako oztopo nagusia da eta Iparraldeko herrialdeok dagokigun erantzunkizunari aurre egin behar diogu. Horretarako tresna eskuartean dugu jada: **Kanpo-zorraren deuzestapenaren aldeko herri kontsulta.**

Kontsulta hori ezin izan da, hasiera batean iragarria zegoen bezala, martxoaren 12an egin; Madrileko 'Junta Electoral Central' delakoaren esanetan, ezin omen zitekeen hauteskunde egunaren jarduera normalaren kontrako ekintza publikorik baimendu.

Agerian geratu da Elkartasunak Justiziaren papera hartzen duenean ez duela politikoki zuzen jokutzen. Herriaren parte hartzea bultzatzen duten horrelako esparru berriek ederki erakusten dizkigute gizarte demokratiko honek ezartzen dizkigun mugak. Hiritar sare sendoa go bat lortu eta dagozkion eskubideaz baliatzeko bideak zabaltzeko ahalegin honetan, maizago behar genuke arazo zehatzei dagokien iritzia emateko aukera.

**Beraz, oraingoan bai, martxoaren 19an, zoaz eta zeuk erabaki!!**

“  
**Nikaraguan ikasteko sasoiak dauden neska-mutilen %50 ezin izango da eskolara joan**  
 ”

\* Aretxabaletako Hiruatxeko kidea

**P**ando  
**ERROTULOAK**  
 Gipuzkoa etorbidea 6  
 (Legarre Pabilioia)  
 Tel. / Faxe: 943 79 79 70

*ML*  
**ILE APAINDEGIA**  
 Alfonso X jakintsua, 1 behea  
 (Grupo San Juan)  
 Tel.: 943 79 79 65

**BASABE JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
**Tel.: 943 79 91 84**  
**ARETXABALETA**



astea bi hitzetan

■ **Intsumiso Eguna**

Bosgarren urtez Intsumiso Eguna ospatu zuten eskoriatzarrek larunbatean. Eskoriatzako Gazte Asanbladak eta Intsumiso Taldeak antolatuta, Herri bazkaria izan zen ekitaldi nagusia. 100 bat lagun bildu ziren herriko plazan egun hori ospatzeko asmoz. Bazkal ostean, Julen Zulaika eta Mantxi bertso-lariak izan ziren eta parodia militar bat ere eskaini zuten Eskoriatzako Gazte Asanbladako taldekideek. Iluntzean, berriz, rock kontzertuarekin amaitu zuten eguna eskoriatzarrek.

Datorren urtean seigarrena ospatuko dute.

■ **Emakume baserritarrek**

Emakume baserritarrek azoka berezia egin zuten larunbatean. Martxoaren 8ko egitarauaren barruan, eskulan eta baserriko produktuen erakusketa zabaldu zuten goizean Seber Altuben. Hemen-go fruitu, barazki eta eskulanak ikusi eta erosteko aukera izan zen; eta nola ez, baita taloak jateko ere.

Eguerdian, eguna gehiago berotu eta alaitzeko, herri bazkaria izan zuten.

Martxoaren 8ko egitarauarekin jarraituz, Maite Barreñak, aukera berdintasuneko adituak, hitzaldia eman zuten Monterronen asteartean. Hitzaldiaz gain,

agertu zirenen artean ideiak trukatu ziren. Berdintasuna izan zuten hizpide.

■ **Hauteskundeak UGTn**

Debagoieneko UGTk Batzorde Eragileko eta Metal eta Eraikuntzako sindikatuko kideak aukeratu ditu. Salvador Peña mondragoetarra izango da hemendik aurrera Debagoieneko UGTko Metal eta Eraikuntza taldeko idazkari orokorra. 40 bat ordezkari hartu du parte barne hauteskunde hauetan. Horietatik %95ek bozkatu du Salvador Peñaren zerrenda. Horrez gain, Jose Antonio Gonzalez aukeratu dute Idazkari Orokorrak.

■ **Bai Euskarari, aurrera**

Bai Euskarari akordioa zein egoeratan dagoen adierazi zien herritarrei astelehenean Pili Kaltzadak.

Kontseilua sortu zenetik hona, antolatzailen itxaropen eta espektatibak erabat gainditu dira. Sinatzaileei dagokienez, 900 gizarte eragilek sinatu dute Bai Euskarari akordioa. Horietako 700 Hego Euskal Herrian sinatu dira, eta 200 Iparraldean.



Porrota bizitzaren alde bat dela eta erabakiak hartzearekin batera doala onartzen hasiak garela uste dut. Baina, erruak banatu gabe, norberak hor duen erantzunkizuna onartzen ikastea falta zaigu.

Bai, positibotzat jotzen diren urte honetan ere defizitak izan dira. Besteez gain, euren gaitasuna onartzea, aukerak ematea, konfiantza izatea falta zaigu; hitz gutxitan, giza kalitate handiagoko lana, aberatsagoa eta ilusio gehiago sortzen duena lortzea.

Elkarlanari eta bakoitzaren besteekin komunean jartzeari dagokienez ere izan dira iskin egiteak. Izan ere, gaur egungo munduan banakako ahalegina nahikoa ez dela, eta etorkizunean oraindik gutxiago izango dela, ez da ulertu, edo gaizki ulertu da.

**ANTONIO CANELO**

*TU Lankide*

(2000ko otsaila)

**TOLDOS  
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14  
Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83  
Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari  
aurre egiten  
diogu inork  
baino hobeto**

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak

P A R K I N A E T A T E R R A Z A

**BASTER-ALDE**

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 24 58

## Jeltzaleak nagusi izan ziren Arrasaten hauteskundeetan

Igandeko bozketak ezusteko galanta eman zuen. Inork ez zuen espero Alderdi Popularrak erabateko gehiengoa lortuko zuenik, ezta ezkerrek halako jipoia hartuko zuenik ere. Kanpainan zehar hainbesteko egurra jaso ondoren,

abertzaleek, gora egin dute apur bat.

Debagoiengan EAJ nagusitu zen herri guztietan. Bailaran PSE-EEren botoak bikoiztea lortu zuen. Hala ere, PP izan zen bailaran boto gehien irabazi zuena.

Kongresurako bozketan Arrasaten, Debagoiengan bezala, Eusko Alderdi Jeltzalea izan zen nagusi, 3.009 botoekin. Bigarren indarra PSE-EE izan zen, 2.867 botorekin. Hirugarren, berriz, Arrasaten alderdi popularra. Sozialistek

baino 689 boto gutxiago lortu zituzten popularrek (2.178). Eusko Alkartasuna izan zen laugarren indarra, 1.485 boto lortu zituen Begoña Erraztiren alderdiak. Ezker Batuak, berriz, 738 boto eskuratu zituen. Azken bi horiek eta sozialistek egin zuten behera Arrasaten.

### Emaitzak auzoz auzo

	EAJ	PSE-EE	EA	PP	EB	Abstentzioa
<b>Erdialdea</b>	1.237	436	622	517	156	2.850
<b>Santamaina</b>	161	659	81	392	159	989
<b>Musakola</b>	338	257	201	186	96	1.085
<b>San Andres</b>	389	639	217	440	117	1.395
<b>Uribarri</b>	774	858	323	584	205	2.334
<b>Auzoak</b>	110	18	41	59	5	847

### ABSTENTZIOAK ERE GORA


EAJk botoen %29 lortu zuen Mondragoen eta sozialistek %27,5 boto. Abstentzioak, ordea, erantzun handia izan zuen herrian. 9.500 lagun abstentitu ziren, 1996ko Espainiako Gortetarako hauteskundeetan baino %18 gehiago.

### Alderdi popularrak botoen %21 lortu zituen Mondragoen

### Emaitzak Arrasaten

Hautesleen errolda (2000-3-12): 20.209

Espainiako Gortetara (1996-3-3)  
 Eusko Legebiltzarrerara (1998-10-25)  
 Espainiako Gortetara (2000-3-12)



Goienkaria



**EAJk 10.673 boto lortu zituen Debagoiengan, Alderdi Sozialistak ia halako bi. Jose Mari Loitik San Andres herri eskolan eman zuen botoa.**

## Goienkaria jaio zen

Joan den astelehenean *Goienkariak* "etorkizuneko astekariaren lehen aleak" eman zizkigun Debagoieneko emaitzak Espainiako gorteetarako hautskundeetan. Goiena Komunikazio Zerbitzuak argitaratu zuen. Debagoieneko euskara elkarteek osatzen dute Goiena. Bailaran 20.000 ale banatu ziren astelehenean goizean goiz. Bailarako herri komunikabideetako kideek lan egin zuten Goienkaria egiteko. Goienkaria Debagoieneko kiosko, lantegietako jangela, udaletxe eta bestelako lekuetan banatu zen. San Prudentzioko bidegurutzean ere hiru lagun aritu ziren banaketan.



### ARGAZKILARIA JON OZAETA

Zenbaki berezi horretan Jon Ozaetak izan zuen lehen orriko argazkiaren ardura. Oñatiko alkateari, Angel Iturberi atera zion argazkia Jonek, botoa ematen ari zela.

## Independentzia Eguna

Abstentzioaren aldeko apustua egin zutenak kalera atera ziren hauteskunde egunean. Preso lagun eta senideen argazkiak aldean hartuta, herri txikiteoa egin zuten goizean, bazkaria ondoren eta kale agerraldia bukatzeko.


Euskal Herriaren nortasuna aldarrikatu zuten.




**PSE-EEk 5.464 boto lortu zituen Debagoienean, Alderdi Popularrak baino ia 1.000 boto gehiago. Paco Garciak Ferixalekuan eman zuen botoa.**



**PPk 4.691 boto lortu zituen Debagoienean. Eusko Alkartasunak baino 200 boto pasatxo gehiago. Jose Ramos Prietok Erguin Herri Eskolan bozkatu zuen.**



**EAK 4.379 boto lortu zituen Debagoienean. Ezker Batuak baino 2.000 boto gehiago. Amaia Larrañagak Ferixalekuan bozkatu zuen.**



**Ezker Batuak 1.384 boto lortu zituen Debagoienean. Aramaion bakarrik egin zuen gora alderdiak. Joseba Ugaldek Ferixalekuan bozkatu zuen.**

## Diseinu saria Gamei enpresari

Gamei enpresak makina herramintaren estatuko diseinu saria eskuratu du. Bilboko Makina Erremintaren Nazioarteko azokan jaso du DZ Diseinu zentroak ematen duen saria. Jose Luis Mendizabal Gameiko lehendakariak Espainiako Industria eta energiako ministroaren eskutik hartu zuen joan den asteazkenean.

Baina Gameirekin batera herriko beste hiru enpresak ere jarri zuten euren erakuslekua Bilboko Nazioarteko Azokan. Bi urtean behin egiten den azoka horretan Lasa, Fagor Automation eta Fagor Arrasate izan dira eta

larunbatera arte egongo da zabalik azoka. Guztira 2.079



Jose Luis Mendizabal, Gameiko lehendakaria Bilboko Azokan.

enpresak jarri dituzte euren mahaiak 21. aldiz egiten den azoka honetan. Herriko lau enpresen arduradunek adie-

razi zigitenez, "urteak dira azoka honetara etortzen gara, eta aurten askoz ere erakusle gehiago dago".

## Laneko heriotzak salatzen

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek kale bilkura egin zuten astelehenean Auzo Lagun kooperatibako atarian. Martxoaren 6an, Luis Mari Navaro Gomez Auzo Laguneko langileak bizia galdu zuen errepidean. ELA, LAB eta CCOOek egungo lan egoerak langileak arriskuan jartzen dituela azpimarratu zuten bilkuran. Enpresarioei eskaera zuzena egin zieten: lana eta zereginak planifikatzea, egoera guztiak aztertu eta zuzentzeko baliabideak jar ditzatela; benetako prebentzio plangintzak jartzea.

Aurten Hego Euskal Herrian 20 lagunek hil da istripuetan.

## MCCk bilioi bateko salmentak izan ditu

Mondragon Kooperatiba Korporazioak bilioi bateko salmentak izan zituen iaz, sortu zenetik lehen aldiz. Kopuru horretatik, Industria Taldeak 436.000 milioi pezeta fakturatu zituen eta %12 hazi ziren talde honen salmentak. Errentagarritasunak ere %10 egin zuen gora. 34.000 milioiko inbertsioak egin eta 1.300 lanpostu sortu ziren.

Banaketa Taldeak, berriz, hau da Eroskik, 600.000 milioi pezeta fakturatu zituen, %20ko hazkundea, beraz. 40.000 milioiko inbertsioak egin zituen eta 2.100 lanpostu sortu zituen.



### FINANTZA TALDEA

Aipagarriak dira, bestalde, Euskadiko Kutxak iaz izandako irabaziak. Euskadiko

Kutxak handitu egin zuen merkatu kuota, batez ere konpetentziako finantza erakundeek baino hazkunde handiagoa

izan zuelako. Halaxe adierazi zuten pasa den ostiralean Euskalduna jauregian eman zuten prentsaurrean Juan Jose Arrieta zuzendari orokorrak eta Juan Mari Otaegi lehendakariak.

Finantza marjinak handitu egin zituen, baita eraginkortasun indizea ere. Horrekin batera, apustu sendoa egin zuen enpresen alde. Izan ere, %24 handitu du enpresei zuzendutako finantziazioa.

Guztira zortzi sukurtsal ireki zituen iaz Euskadiko Kutxak.

*Lore*

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Sagardotegia Txotx egin!

**ITUROIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M A**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

# Hizkuntza eskubideen aldeko kanpaina

Kanpaina berezia antolatu da martxoan arrasatearren hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko. Bereziki, justizia administrazioan euskarak duen egoeraren berri emango da. "Euskaldunon Eskubideak Justizia Administrazioan" izeneko lantaldeak antolatu du kanpaina berezi hau. Talde horren barruan, AED, AEK, EHE eta Euskalan elkarteak, San Frantzisko Xabier ikastola eta ELA eta LAB sindikatuak daude.

Mahainguru eta erakusketak bat izango ditu ardatz kanpainak.

Mahainguruaren aurretik, justizia administrazioan euskaldunon eskubideen alde goian aipatutako elkarteek idatzi eta sinatu duten agiria aurkeztuko da.

Datorren asteazkenean izango da hori, Monterronen.

Sei puntu aldarrikatzen dira idatzian:



- Euskararen ofizialtasuna onartuz, justizia administrazioan euskararen erabilpena bultzatu.
- Herritarrek nahi duten hizkuntzan izan behar dira harremanak.
- Administrazioaren eginbideak norberak aukeratutako hizkuntzan eman behar dira.
- Itzulpena ez da bidea.

Modu sistematikoan erabiliz gero, herritarren printzipioaren aurka doa.

- Euskalduntze mailakatu baina sostengatua ematea. Epaile, fiskal, idazkari, agente eta laguntzaile guztientzat.
- Hasteko, bake epaitegien euskalduntze osoa lortu beharko litzateke.

Aipatutako sei puntu hauekin, bestalde, datorren martxoaren 30ean Arrasateko Udalean mozioa aurkezteko asmoa du talde honek, udalbatzarraren atxikimendua eskatzeko.

Horrez gain, datorren astelehenetik igandera arte, Monterronen erakusketa irekiko da euskararen egoeraren berri emateko. Adibide bat: Bergaran, Eibarren eta Donostian lan egiten duten epaile, fiskal eta idazkari ia guztiak, %99, erdaldunak dira. Beraz, euskara apenas erabiltzen da.

## Herri kontsulta

Hauteskunde egunean kanpo zorra ezabatzeko egin behar zen herri kontsulta domekan izango da.

Hasieran aurreikusita zegoen moduan, goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00ak arte ipiniko dira bozketarako mahaiak. Oraingo honetan, baina, eskoletan barik, jendea barra-barra ibiltzen den tokietan jarriko dira. Hain zuzen ere: Arima Zuri plazan, Seber Altuben, Maiatzak Bat enparantzan (CIMen ondoan), Herriko Plazan eta Maalako gurutzean. Honetaz gain, hauteskontzi mugikorrek ere izango dira, kelan bueltaka.

Pasa den eguakotxean erabaki zuen Junta Elektoral Zentralak kontsulta debekatzeko. Alderdi politikoren batek kanpo zorraren deusestea kanpaina barruan erabiliz gero, horri fabore egingo diolokotan debekatu zuten herri kontsulta.

## Triskantza Santa Barbaran

Astearte arratsaldetik asteazken goizaldera tartean ezezagun batzuk Santa Barbara parketik bi zuhaitz moztu eta lapurtu zituzten. 10-15 urte inguruko plataneroak ziren bi zuhaitzak.

Arbola bakoitza berriro ere ekarri eta landatzeak 100.000 pezetako kostua du.

### LEIHOAK APURTUTA

Honetaz gain, han dagoen eraikinaren leiho guztiak apurtuta agertu ziren, baita paperontzia ere.

Tamalgarria benetan, guztion erabilera eta gozamenarako den gune bat modu honetan zaintzea.

## Diru laguntza eskaera aldundiari

Arrasateko Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Zerrajerako lan horien jarraipen arkeologikoa egin dezala. Izan ere, Unión Cerrajerena zenaren pabilioiak botatzerakoan Iturriotz izeneko iturria zaintzea erabaki zen. Agiri batzuek iturriaren inguruan dorretxea, errota eta burdinola zeudela ere ematen dute jakitera. Uste denez, XV. mendean dute jatorria. Elementu horiek suntsitu egin ziren Zerrajerako pabilioiak egiterakoan, baina errotaren hondar batzuk zutik gelditu ziren.

### EZTANDAK LARUNBATETAN

Bestalde, gogoratuko duzue



Zerrajerako lanen jarraipen arkeologikoa egitea eskatu da.

urtarrilaren 3an eztanda handia izan zela San Josepeko harrobian. Herritarren hainbat kexa eragin zituen eztanda hark. Ondorioz, udalak hainbat eskaera egin zizkion harrobiaren ardura duen enpresari.

Enpresak erantzun ditu udalaren eskaerak. Batetik,

enpresak gertatutakoa sentitzen duela adierazi du, eta hemendik aurrera eztanda larunbatetan egingo dituela ere jakinarazi du. Dena dela, eta edozein arrazoirengatik eztanda beste egun batean egin beharko balitz, aurrez abisatuko lukete harrobiko arduradunek.

# Istiluak zentral eolikoaren inguruan

Elgeako zentral eolikorako ziren sei pala guztiz kiskalita azaldu dira Arabako Ozaeta inguruan. Kamioi batean zeuden, Elgeara eraman aurretik hantxe utzita.


Ertzaintzak jakinarazi digunez, zapatu gauean eman zieten su; salaketa jarrita dago eta gertatutakoa ikertzen ari dira.

Aseguru etxeko peritoen esanetan 25 milioi pezetako kalteak izan ditu Gamesa enpresak, beso hauen jabeak.

Beso bakoitzak 22 m.ko luzera du.

## JARRAIPEN BATZORDEA HASERRE

Baina ez da hau izan Elgeako zentral eolikoko istilu bakarra. Lan horien jarraipenaz arduratzen den batzordea ez dago batere pozik lanen martxarekin. Izan ere, Esko-



Larunbat gauean eman zieten su Elgearako sei besoei.

riatzako lurretan sartzeko bai- mena izan arren, Arabako Barrundiako lurretatik jarraitu dute lanek. Ondorioz, Elgea mendilerroko animalia zein landareentzat babesgune den antzinako harrobi batetik pasa dira eskabadorak, Jarraipen Batzordeak hortik ez pasatzeko beharrezkoak diren bai-

men guztiak lortu arren. Hori ikusita, Jarraipen Batzordearen lana zalantzan jartzen dela uste dute taldeko kideek.

Asteartean seigarren aire-sorgailua jartzen ari ziren Elgean. Guztira, 80 aire-sorgailu edo haize errota ipiniko dira bertan. Orain, zentral eolikoaren lehenengo zatia egiten ari dira.

40 ipiniko dira lehenengo aldi honetan.

Horietako bakoitzak 50 metroko altura du eta pala bakoitzak 22 metroko luzera, beraz, 44 metroko diametroa hartzen du haize errota bakoitzak. Baieztatuta egon ez arren, zentralaren aurreneko zatia, 40 aire-sorgailu, udarako martxan egotea espero da.



Udarako martxan egotea espero da.

## Kutxa Fundazioa eta begiraleak epaitegietan berriro

Kutxa Fundazioak eta Familia eta Gizarte Heziketako Zentroko begiraleen arteko ika-miken barruan, bigarren epaiketa izan zen astelehenan.

138 begirale daude liskar honetan sartuta. Hauetatik, 20 inguru mondragoetarrek dira.

Gogoratuko duzuenetz, inspekzio baten ondorioz, langile horiek egoera irregularran zeudela ohartu ziren. Ez zitzaiola Gizarte Asegu-

rantzari dirurik ordaintzen. Horren aurrean, langileak autonomoak direla eta euren kontua dela adierazi zuen Kutxa Fundazioak, langileen esanetan, aldiz, eurak ez dira autonomoak, Kutxaren langileak, baizik.

### LAN HARREMANAK ZEHAZTEN

Eta horixe da, hain zuzen ere, Donostiako Gizarte gaietarako bigarren epaitegiak era-

baki behar duena: begiraleen eta Kutxa Fundazioaren artean lan harremanik dagoen ala ez.

Pablo Rueda epaileak erabakiko du nork ordainduko duen Gizarte Asegurantzari zor zaion diru kopurua: 31 milioi pezeta, hain zuzen ere. Kutxaren eta begiraleen artean lan harremana dagoela erabakiko balitz, Kutxa Fundazioak ordaindu beharko luke aipatutako kopurua. Lan

harremanik ez dagoela erabakitzen badu, aldiz, begirale bakoitzaren aurkako prozesua hasi beharko luke epaileak.

Mondragoeko begiraleen abokatu Juan Antonio Sierrenaren esanetan, 15-30 bat egun pasa daitezke epaia plazaratu aurretik.

1997tik 98. urteko lehenengo seihilabeteari dago-kion diru zorra da epaiketa honetan aztertuko dena.

**I  
L  
E  
A**

Ferreries. 943 79 87 62

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**HIES  
EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiralean  
Setatik Betara.

Tel.: 943 79 26 99

# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atak, oholzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baseria) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltzaritza



*Izcue Irurzun*

Igeltzaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 38

## Ate eta pertsianak

**JUBAR**  
ATEAK S.L.

Garajeetako ate eta pertsiana automatikoak

Kataide poligonoa, 1

Tel.: 943 79 10 20 • Faxa.: 943 79 08 17

## Igeltsoak - Apaintzea

**Pako eskaiolak s.l.**

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

## Margoak

**APAIN**  
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**



**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**A. Pascual**

Bañez Doktorea, 8

Tel.: 943 79 65 29

Mug.: 666 59 58 05

**JOVI**

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87



**RRASATE**

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

## Pertsianak



**PERSIANAS CARPER**

Mota guztietako pertsianen  
salmenta, muntaketa  
eta konponketa

Eskuzko pertsiana eta elektrikoak

Anboto2. 1 esk. Tel.: 943 79 67 43  
Mug.: 630 27 46 09

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

**AURI**

Loramendi 7, 2 behea  
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

## Tapizeriak

**Konrado**

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

**Eskatu aurrekontua.**

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta  
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren  
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak  
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1  
Tel./Fax: 943 79 76 03

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Gida honetan azaldu nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 telefonora

## MINTZA PRAKTIKA SAGARDOTEGIAN



### A ZE APETITOA!

Emakume baserritarrek baserriko gaiak eta artisauek beren eskulanak erakutsi zituzten joan den zapatuan Seber Altuben. Ondoren Musakolako hostalera egin zuten bazkari legea. Horrelako goiza pasatu eta gero, irabazita izango zuten, ezta?



Erdu-AEK euskaltegikoak sagardotegira joan ziren zapatuan. Txuleta goxoak jan eta nahi adina sagardo edan zuten. Hori guztia, gainera, euskaraz hitz eginez. Argi gelditu da, beraz, sagardotegietan sabela bete eta ongi pasatzeaz gain mingaina ere ondo astin daitekeela. Ala ez?



### HEGOAMERIKARRAK BISITAN

Bederatzi hegoamerikar hauek martxoaren 6an etorri ziren Eskoriatzara, Mundukide Fundazioaren truke programan parte hartzera. Hilabete guztia hemen pasatuko dute. Esperientziak trukatzea du helburu bisitak, eta joan den ostiralean ARKOn izan genituen, Agurtzaneren azalpenak adi-adi entzuten.

### GUAPO JARTZEN

Hauteskunde egunean bailarako herrietan izandako emaitzak ATBk eman zituen inork baino lehen. Lantalde handia aritu zen horretan. Aretxabaletako Gemes edertza aretoko Xeli eta Mari Karmen ederto makilatu zituzten aurkezleak.







## SUEDIARRAK ATBN!

Asteazkenean politikari sonatu ugari elkartu zen ATBko mahainguruan. Suediaraino ere iritsi zen oihartzuna, nonbait, eta hemen izan genituen, Joseba Permach EHko ordezkaria elkarrizketatzen. Aurrez Xabier Arzalluzekin egon ziren, EAJk Amaia antzokian egindako mitinean.

## HORI BAI ANTZEZTEA!

Arrasateko umeengan antzerkirako zaletasuna pizteko Eskola antzerki jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Arrasateko udalak. Horretaz gain, San Andres Herri ikastetxean ere egiten dute umeak antzetzokietara hurbiltzeko ahalegina. Ikusi bestela!



# Irrati ikastaroa

Irrati kontrola

- Noiz: Martxoaren 27tik apirilaren 7ra arte
- Egunak: Astelehenetik ostiralera (20 ordu)
- Ordutegia: 19:00-21:00
- Lekua: Arrasate Irratia
- Matrikula: 3.000 PTA  
ikasle eta langabeek 2.000 PTA.

**IZEN EMATEA: Gazte Bulegoan**  
Tel.: 943 77 00 65

Gazteria Saila ■



ARRASATEKO UDALA

# Elkartasunez herriak gaa

Milaka kilometrok eta ozeano zabal batek banatzen dituzte Arrasate eta Hegoamerika. Urruntasuna ez da oztopo, ordea, etxe-ko leihotik bestaldera begiratu nahi duenarentzat. Distantziak laburtuz eta emanaz ere asko hartu daitekeela jabetuta, esperientziak trukatzeko plana jarri du abian Mundukide Fundazioak.

Merit, Francisco Javier, Edith, Tomas

Pedro, David, Eugenia, Gloria eta Marycruz hegoamerikarrak dira. Martxoaren 6an Eskoriatzara etorri ziren Mundukide Fundazioak gonbidatuta. Antolakuntza lanetan, ordea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko hainbat ikasle aritu dira. Hegoamerikarrek hilabete osoa pasatuko dute hemen, Garapen Komunitarioko esperientzien Truke Programan parte hartuz.

tsanak hezitzea ere bada gure asmoa, besteak beste”.

Niassakoarekin hasi baino lehen, ordea, Mozambike hegoaldean mikrokredituen proiektu batekin hasi ziren lanean. Funtsean, hango biztanleei interes baxuko kredituak ematean datza egitasmoa, enpresa txikiak sor ditzaten.



Pertsonen heziketa da hirugarren munduko herrialdeak garatzeko oinarrietako bat.

Lankidetzan oinarritutako hartuemanak bultzatzea da egitasmo honen helburua. Pertsonen elkar-trukerako beka deialdia egin zuen Mundukide Fundazioak horretarako, eta deialdi horri erantzunez etorri dira zortzi hegoamerikarrak. Peru, Ekuador, Nikaragua, Guatemala eta Mexikokoak dira.

## MUNDUKIDE

Eskualdeko Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuen ekimenez sortu zen Mundukide Fundazioa. Eskoriatzako Atxorrotx, Aretxabaletako Hiruatx, Arrasateko Harre-

man, Oñatiko Banoia, Antzuolako Hirugarren Munduko Taldea eta Bergarako Fisc GKE-ek eta MCCK sinatu zuten lehen hitzarmena iaz. Enpresen irabazien zati bat hirugarren munduko herrialdeetara bideratzea du helburu nagusi. Horrela, herrialde horien garapena sustatuko luketen proiektuak finantzatzeko erabiliko litzateke dirua.

Funtzionamenduari dago-kionez, talde autonomoa da Mundukide, eta hiru ildo nagusi ditu: herrialde azpigaratuen garapena bultzatuko duten proiektuak bideratzea, truke planak egitea bekadunek beren esperientziak aldera ditzaten,

eta hirugarren munduko herrialdeetan enpresak sortzea.

## PROIEKTUAK

Dena dela, hegoamerikarren etorrera bideratu duen truke plan hau ez da Mundukidek eskuartean duen egitasmo bakarra. Mozambikeko Niasa eremua garatzeko helburuarekin beste proiektu bat ere ari da aurrera eramaten. Jose Anjel Mikeo Mundukideko presidentek adierazi bezala, “hainbat arlo hartzen ditu bere baitan Niassako egitasmoak: heziketa arloa, osasuna, garapen ekonomikoa... Proiektu hau kudeatzeko per-

## TRUKE PROGRAMA

Ezagutzak, baloreak eta esperientziak trukatzeko oso modu aproposa da Mundukide Fundazioak abian jarri duen Truke Programa. Lau helburu nagusi ditu: batetik, Jose Maria Arizmendiarririk garatutako kooperatiba ereduaren esperientzia bekadun hegoamerikarrei helaraztea, mugimendu horretatik eratorritako egitura komunitarioak ere ezagutaraziz. Era berean, ordea, komunitateen garapenerako hegoamerikarrek dituzten bizipenak Mondragon Unibertsitateko ingurunean ere eman nahi dira ezagutzera. Kooperatiben gizarte inguru-neari hirugarren munduak egiten dizkion ekarpenak ere ezagutarazi nahi dira, eta azkenik, berriz, elkarte kooperatiboen artean lankidetzaren harremanak jarri nahi dira abian. Izan ere, Leire Mujika Garapen Komunitarioko Esperientzien Truke Programako prentsa arduradunak aitortu

**“Guk haiengandik eta haiek gugandik ikasteko modua da truke programa”**

# aatuz



Edith, Pablo eta Eugenia, Eskoriatzan.

bezala, "egitismo hau harreman baten hasiera baino ez da. Kanpoko herrialdeetako jendea ireki nahi diogu, kooperatibismoaren baloreak ikas ditzaten eta ondoren hemen barneratutako esperientzia beren herrialdeetan baliatzen. Bidenabar, hango baliabide eskasekin beren herrietan egindako aurrerapenak ere nolakoak diren ikas ditzake hemengo jendeak. Guk haiengandik eta haiek gugandik ikasteko modua da, eta edozein herrialde azpigararekin errepikatu nahi genuke esperientzia berbera".

## ARRISKUAK

Ohiko kooperazioak baditu zenbait arrisku, eta horiei aurre egin nahi izan die Mundukidek truke programa honen bidez. Norabide bakarreko kooperazioa sortzea, dependentzia berriak sortzea eta herri azpigaratuen potentzial sortzailea ez bultzatzea dira arrisku horietako batzuk.

Hori dela eta, hainbat ekin-tzatan hartuko dute parte hila-bete osoan: Kooperatiben Uni-

bertsitate Institutuak antolatutako hainbat kurtsotan izango dira, Mondragon Unibertsitatearen eta Arizmendiren hezkuntza heziketarako antolamenduak ezagutuko dituzte, hainbat erakunde bisitatuko dute, publiko osoari zabalduko hitzaldiak eskainiko dituzte...

## PAREKOTASUNAK

Hegoameriketako zortzi bekadunak eskualde indigenetan eta hainbat erakundetan pisu handia duten pertsonak dira, ikasketadunak, eta oso pozik daude jendeak egin dien harre-

rarekin. Batzuek bazuten hona etorri aurrez Euskal Herriaren ezagutza. Eugeniak, esate baterako. Bost urte daramatza lanean Eugeniak Hirugarren Mundua eta Bakea elkartearen baita duela hamaika urtetik ezagutzen du Euskal Herria: "Karakter handikoak, langileak eta norbere buruarekin eta besteekin oso zorrotzak zarete euskaldunok, eta euskaldun izateaz oso harro zaudete", diosku Eugeniak. "Horrez gain, gatazka armatuek eragindako herriei eta egoera ekonomiko txarrean daudenekin oso solidarioak zarete", gaineratu digu.

Dena dela, parekotasunik ere aurkitzen dute Euskal Herriaren eta beren herrialdeen artean: "Guatemala eta Mexikon indigenek beren hizkuntzan mintzatzeko eta herri bezala garatzeko eskubidea aldarrikatzen dute. Oso langileak eta egiten dugunarekiko oso erantzuleak gara, baina bizi dugun zapalkuntza dela medio, gure gaitasunak ez ditugu behar bezala garatu. Arrazakeriaren ondorioz jasan dugun bazterketak eragin handia izan du komunitate indigenen atzerapenean.

Guatemalan hiritarren gehiengo indigena da, %62. Hizkuntzari dagokionez hogeita hiru etnia daude, baina guztiak dira maia jatorrikoak. Horiek dira euskaldunekin horrenbeste identifikatzearen arrazoiak", adierazi digu Eugeniak.

## KOOPERATIBISMOA

Hegoamerikarrek ez dute hemen ikusitakoa zuzenean beren herrietan txertatu nahi. Baina sistema kooperatiboari hasiera eman zioten printzipioen hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan, gure gizartean kooperatibek izan duten ibilbidea izugarria baita beraiek gauegun beren jaioterrietan lor dezaketenarekin alderatuz.

Dena dela, eta Pablok jakinarazi digunez, "kooperatibismoaren sustraiak hegoameriketako herrietan ere antzeman daitezke. Guatemalaren kasuan, adibidez, bukatu berri den gatazka armatuaren aurrean modu bateratuan defendatu dira herriarrak. Komunitate ugari beste herrialde batzuetan aurkitu dute babesa, edo kontrol militarri oihanean egin diote aurre, elkarlanean. Orain, berriz, eginbeharririk handiena garapenean alde lan egitea da, baina talde lanean".

Bizipenak trukatzeko, beraz, hegoamerikari ireki dio leihoa Mundukide Fundazioak oraingo honetan. Eta leihorik zabalik uzteko asmoa dute gainera, aurrentzean ere herriak elkarren bizipenetatik gara daitezten, elkartasunean. ■



Afrikan ere hainbat egitismo ditu abian Mundukidek.

Maidar Osa

# RAFAEL FERNANDEZ ZUBIAGA (ENPRESARIA ETA MARGOLARI)

## “Margogintzan norbat

Orain 66 urte Urduñan sortua den arren, Arrasateri loturik eman ditu Rafael Fernandez Zubiagak bere urte esanguratsuenak. Enpresa gizon moduan da ezagun herrian, Amuebladora Mondragonesa, Okendo Kirolak eta beste hainbat dendaren sortzaile izan baita. Hala ere, kontatzeko moduko beste alderdi batzuk baditu Rafaelen bizitzak.

—Gertakizunez eta aldatzetaz betea izan da zure bizitza, ezta?

—Bai, hala da. Oinarrizko ikasketak egin ondoren, nire aitaren zapatagintza tailerrean hasi nintzen lanean. Baina oso marrazkilaria on ere bazen nire aita, eta ni ere zaletu egin nintzen. Hamabost urte nituenean, Bay-sala margolaria etorri zen Urduñara, eta ni segika hasi nintzaion, ikasi nahian. Oso ondo hartu eta ikasle bezala onartu ninduen. Baina

Bay-salak talentua nuela uste zuen, eta lana uzteko baime-na eskatu zion nire aitari. Orduan margogintzan hasi nintzen buru-belarri.

—Nolako esperientzia izan zen?

—Benetan ona, arrakasta handia izan nuen eta. 17 urterekin lehen aldiz egin nuen erakusketa, Bilbon. Beste hiru erakusketa ere egin nituen, eta margoak saltzetik bizi nintzen. Bidaiatu ere, asko bidaiatu nuen. 15 urterekin Granadara joan nintzen margotzera, film batean hiri hura ikusi ondoren.

—Noiz arte iraun zuen aldi horrek?

—Soldadutza egin behar izan nuen eta ondoren, 22 urte nituela, Arrasateko nire amandrea alargundu egin zen eta altzari negozioa ezin eraman geratu zen. Orduan lagun egitera eta negozioaren

ardura hartzera etorri nintzen. Horrek, jakina, margogintza uztera behartu ninduen.

—Eta zure enpresario aldia hasi zen. Eta ondo hasi ere, ezta?


—Bai, hala da. Amandrearen negozioa gaizki zihoran eta, nik ardura hartuta, poliki poliki berpizten joan zen. Gero, neure negozioa zabaldu nuen, Trinketeko frontoi zaharrean. Hor ere arrakasta izan nuen. Arra-

satearrek konfiantza zuten nigan, eta nire salgaiak erosten zituzten.

—Nola sentitu zinen margogintza utzitakoan?

—Gaizki. Oso gaitza egin zitzaidan nire bokazioa alboratzea, kontuan hartuta, gainera, margogintza utzi beharko nuela burutik pasa ere ez zitzaidala egin. Negozioak denboramordobat

j a t e n



**“Orain gazte denboran baino ilusio handiagorekin ari naiz margotzen”**

# izatera iritsi nahi dut”

zidan eta dena eman behar nion. Pentsa, margogintzatik bizitzetik berrogeita bost urtean dozena bat margo egitera pasa nintzen.

**—Damutzen zara hartu zenuen erabakia hartzeaz?**

—Alde batetik, pena ematen dit urrutiago ez iritsi izanak, normala den moduan. Baina bestetik... hara, dende-kin arrakasta handia izan dut, nire ondorengoei lana eta segurtasuna eman dizkiet, eta horrek ere asko balio du.

**—Zein da zure egoera**

**gaur egun?**

—Duela bi urte erretiratu nintzen, eta artearekiko nuen zor hori kitatzen ari naiz, berriro margotzeari ekin diot eta. Arrasaten bizi naiz, baina Gasteizen dut estudioa, eta goizeko zazpietatik aurrera hantxe ibiltzen naiz, lan eta lan.

Zapatari moduan lan egiten nuenetik oso goiz jaikitze-ko ohitura geratu zait, eta margotzeko aprobetxatzen dut ia egun osoa. Hemen, Arrasaten, familia osoa daukat eta hemen geratuz gero, ez dut pintzela hartu ere egiten.

**—Zein da zure estiloa?**

—Inpresionista. Paisajak dira nire gairik gogokoenak, eta naturaletik margotzea gustatzen zait. Eraginei dago-kienez, Goya eta Sorolla valentziarra dira nire margolaririk maiteenak.

**—Nolabaiteko bilakae- rarik izan duzu gaztetxo bat zinenetik gaurdaino?**

—Dudarik gabe. Oraingo oihalak ikusi dituen jendeak orain ausartagoa naizela dio. Adinak, eskarmentuak... ikus- pegi aberatsagoa ematen dute. Ilusioei, ordea, tinko eusten

diet. Orain gazte denboran baino ilusio handiagorekin ari naiz margotzen. Eta nire hel- buruak oso argi ditut: margo- gintzan norbait izatera iritsi nahi dut.

**—Zeintzuk dira zure hurrengoko asmoak?**

—Arrasaten erakusketa egitea. Harresi aretoan izango da, eta data ere hitzartuta dut: abenduaren 15etik 31 arte. Nire bigarren garai honetako lehen erakusketa Arrasaten egitea nahi nuen, eta beste lekuetako eskakizunak alboratu egin ditut. ■



## RENAULT Aukera

### Auto hauetan serieko 4 abantaila.

- Autoaren azterketa zorrotza.
- Norbere neurriko finantzaketa.
- Konpromisorik gabe autoa probatzeko aukera.
- Eta 30 hilabetera arteko bermea.

MODELOA	URTEA	AUKERAN	PREZIOA PTA.
R. MEGANE CLASSIC 1.6 ALIZÉ	97/12	LD,IZ,KE,AG, IRRATIA	<b>1.590.000</b>
FIAT TEMPRA 1.9TD	95/10	LD,IZ,KE,KLIMATIZAG.	<b>900.000</b>
FORD MONDEO 1.8 TD GHIA	94/04	LD,IZ,KE,AG,ABS	<b>890.000</b>
FORD TRANSIT 2.5D FURGOIA	96/10	LD	<b>1.350.000</b>
FORD GALAXY TDi 6 LEKU	96/10	LD,IZ,KE,AG,ABS	<b>2.730.000</b>

MODELOA	URTEA	AUKERAN	PREZIOA PTA.
CHRYSLER VOYAGER 8 leku 2.5 DSE	97/12	LD,IZ,KE,AG	<b>2.700.000</b>
HONDA CONCERTO 1.6i (16 V)	93/10	LD,IZ,KE,AG	<b>775.000</b>
GOLF 1.8iCL 5 ATE	93/06	LD,IZ,KE	<b>1.090.000</b>
CLIO 1.4i APPLE 5 ATE	97/02	IZ,KE	<b>860.000</b>
TWINGO PACK 1.2	99/06	LD,IZ,KE,AG	<b>1.250.000</b>

Marka eta prezio guztietako 100 auto inguru stockean.




Zure auto berria

## MECA



San Andres auzoa, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 71 21 67 • Amillaga, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 40 68

## Bi baloirekin, bi gol?



**O**rdezko baloia izango zen ziurrenik, baina aukeran, hobe bi baten ordez. Agian horrela gol gehiago sartzeko aukera izango dute jokalariek. Argazkian bat sartu zen... besteak, ihes egin zuen?

### DOPINA ZALDIBARREN?

Aurtengo Zaldibarko txapelketan denetarik ikusten ari gara. Azkena joan den astean gertatu zen. Diego Antonio Iritz taldeko bi jokalariek egin zutena kontatuko dizuegu. Dirudenez, biak gaupasa egin zuten joan den asteburuan, partida zutela kontuan izan barik. Baina hori egin arren, euren betebeharrarekin bete zuten eta partidara agertu ziren.

Xhass Ugarte taldearen aurka jokatu behar zuten igandean goizeko 11:50etan. Eta jakin dugunez, gainera, bi jokalariek partidako jokalaririk onenak izan ziren. Badirudi lorik ez egiteak dopin moduan balio duela eta emaitza bikainak ematen dituela. DA Iritz taldeak 5 eta 2 irabazi zuen Xhass Ugarte taldearen aurka jokatuak norguegiogokan.

Aste honetan jai izango du

DA Iritz taldeak. Jokalariek, beraz, asteburu honetan nahi dutena egiteko aukera izango dute. Aipagarria da gai honen inguruan Zaldibarko txapelketako antolakuntzak ez dela tutik ere esan gai honen inguruan. Dena ondo joaten den neurrian ez da arazorik izaten. Eta hori dela eta, antolakuntzaren aldetik inongo kexurik izan ez denean ere aipatu beharrean gaude.

Kexua beste alde batetik etorri da, ordea. Dirudenez, partidak jokatzeko erabiltzen diren atek ez dira bakarrik partidak jokatzeko ipintzen eta hori pilotan jokatzeraz joaten direnentzat traba bihurtu da. Udalera jo du pilotazaleetako batek kexa hori jartzera.

Adi, beraz, antolakuntzakoak eta atek behar direnean ipini eta behar ez direnean, kendu.



# GRONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



## Sailkapenak

### Emaitzak

#### A taldea

Goma 2 1 - Komando Alpagat 2  
 Kan.r Harrobia 5 - Kobate DKB 2  
 AC Surkos 2 - Irati STS 2  
 Etxe Mobil 2 - Betrayer 13  
 Fraguél Gol 0 - Saukelu Scream 3  
 DA Iriztu 5 - Xhasss Ugarte 2  
 Orlando Piratas 6 - You Know 8

#### B taldea

Potroak 3 - Kamasutra 4  
 Garaje Oscar 4 - Dribling 4  
 Aurrera Bolie 6 - Borrock & Roll 4  
 Leya 5 - Sas T 3  
 Koka J. Basati 4 - Branka Tab. 11  
 Alai Gozokiak 1 - Txeyenex 1  
 AKTA 6 - Etxerat Tab. 4  
 Makai 0 - Serengeti 3  
 Timoftol SMD 7 - Makanudos 1

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
K. Alpagat	16	12	3	1	71	50	<b>27</b>
Orlando	16	12	2	2	99	43	<b>26</b>
You Know	15	13	0	2	89	46	<b>26</b>
AT Lokala	16	11	1	4	71	44	<b>23</b>
Kanpazar Harrobia	16	10	2	4	59	41	<b>22</b>
Sau. Scream	16	10	2	4	59	41	<b>22</b>
Irati STS	16	10	1	5	98	62	<b>21</b>
Ume zikinak	16	9	3	4	88	52	<b>21</b>
AC Surkos	16	9	2	5	76	51	<b>20</b>
Betrayer	16	10	0	6	67	47	<b>20</b>
DA Iriztu	16	8	3	5	65	72	<b>19</b>
Kobate DKB	16	9	0	7	76	56	<b>18</b>
Goma 2	16	9	0	7	63	53	<b>18</b>
Xhasss Ugart.	15	8	1	6	87	67	<b>17</b>
Fraguel Gol	16	8	0	8	66	74	<b>16</b>
Girandilla Con.	16	4	0	12	47	139	<b>8</b>
Atxanta el Ret.	16	2	2	12	33	116	<b>6</b>
Totem	16	3	0	13	18	37	<b>6</b>
Etxe Mobil	16	2	1	13	48	79	<b>5</b>
Sokoakoak	16	2	1	13	23	49	<b>5</b>
Bar Nuevo	16	1	0	15	21	90	<b>2</b>
Lontxo Tab.	16	0	0	16	0	16	<b>0</b>

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Timoftol SMD	16	13	2	1	103	40	<b>28</b>
Dribling	15	3	1	1	69	23	<b>27</b>
Kamasutra	16	11	2	3	64	38	<b>24</b>
Branka Taberna	16	10	2	4	113	73	<b>22</b>
IKP	15	10	1	4	81	55	<b>21</b>
Aldibi	16	9	1	6	61	65	<b>19</b>
KJ Basati	16	9	0	7	83	83	<b>18</b>
Etxerat Tab.	16	7	4	5	73	58	<b>18</b>
Txeyenex	15	8	2	5	65	66	<b>18</b>
Serengeti	16	8	2	6	48	50	<b>18</b>
Garaje Oscar	16	6	5	5	68	56	<b>17</b>
Potroak	16	6	3	7	53	53	<b>15</b>
Leya	15	6	2	7	50	52	<b>14</b>
Aurrera Bolie	16	6	2	8	45	58	<b>14</b>
AKTA	16	6	1	9	51	51	<b>13</b>
Borrock & Roll	16	5	2	9	63	80	<b>12</b>
Makanudos	16	5	1	10	46	98	<b>11</b>
Alai Gozokiak	16	3	3	10	46	70	<b>9</b>
EPEH	16	4	1	11	43	52	<b>9</b>
KK Jauriaritzari	16	4	0	12	29	30	<b>8</b>
Makai	16	2	2	12	57	116	<b>6</b>
Sas T	16	2	1	13	49	93	<b>5</b>

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
 Kontzezio Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## Hurrengo partidak / 17. jardunaldia

### Iarunbata, 18

#### Zaldibar

08:50	Sas T - Txeyenex	(Kamasutra)
10:00	Garaje Oscar - Kamasutra	(Sas T)
11:00	Koka Juniors - Etxera Tab.	(Garaje Oscar)
12:00	Betrayer - DA Iriztu	(Etxerat Tab.)
13:00	Orlando Piratas - AT Lokala	(AC Surkos)
14:00	You Know - Saukelu Scream	(AT Lokala)
15:00	IKP - Borrock & Roll	(You Know)
16:00	Makanudos - AKTA	(Borrock & Roll)
17:00	Timoftol - Dribling	(AKTA)
18:00	Komando Alpagat - Kanpazar Har.	(Timoftol)
19:00	Goma 2 - Girandilla Con.	(Kanpazar Har.)

#### Epailea

#### Iturripe A

15:50	Xhasss Ugarte - Etxe Mobil	(Branka Tab.)
17:00	Leya - Branka Tab.	(Etxe Mobil)

#### Iturripe B

15:50	Ume Zikinak - Fraguél Gol	(Potroak)
17:00	Serengeti - Potroak	(Fraguél Gol)

### igandea, 19

#### Zaldibar

10:50	Alai Gozokiak - Aldibi	(Atxanta el retorno)
12:00	Kobate Har. - Atxanta el Ret.	(Aldibi)
13:00	You Know - Xhasss Ugarte	(Kobate DKB)

**Atsedena:** DA Iriztu, Irati STS, Makai eta Aurrera Bolie

## ERRUGBIA Ezusteko garaipena



Erronka zaila zuten herriko errugbilari nagusiek joan den asteburuan. Izan ere, Getxoko taldearen aurka jokatu zuten Garagartzan, baina jipoi ederra eman zieten hemengoek bizkaitarrei.

Lehenengo zatian etxeko taldeak hamar puntuko aldea eskuratu zuen eta Getxok zati bakoitzeko entsegu bat besterik ez zuen lortu. Arrasatek, berriz, sei: Potatok 3, eta Markelek, Potolok eta Aitor Agirreurretak bana. Azken emaitza, Arrasatek 32 Getxok 10. Gazteek ere galdu egin zuten Universitario 15 taldearen aurka eta kadeteek 64ra laga zituzten durangarrak

Aste honetan senior, gazte eta haur mailako taldeek jai izango dute.

## SASKIBALOIA Bigarren porrota



79 eta 67 galdu zuen Kenci Arrasatek joan den asteburuan Iruñeko

Transportes Lesaca taldearen aurka. Igoera aldiko bigarren porrota izan da mondragoetarrentzat. Nafarrak gogor aritu ziren hasieratik eta Lander Errastik bi hutsarte behar izan zituen partida parekatzeko. Horri esker sei minututan 1 eta 14ko partziala lortu zuten eta lehen zatia amaitzeko 3 minutu falta zirenean, zazpi puntuko aldea zuten nafarrek. Bigarren zatia ere parekatua izan zen, baina nafarrek eskutu zuten hutsartea eta liderren antzera, garaipena eskuratu zuten. Kencik jaurtiketa libre-tan portzentaje eskasa lortu zuen. Aste honetan derbia izango dute Durangoko Tabira taldearen aurka Iturripen.

## FUTBOLA Garaipen bikaina



Infantil mailako taldeak garaipen bikaina eskuratu zuen joan den asteburuan. Tolosako hamaikakoa izan zuen aurrez aurre eta lehenengo zatian izandako erritmoari esker 3 goleko aldea lortu zuten mondragoetarrek. Bigarren zatian lasaiago ibili ziren eta bi taldeek gol bana sartu zuten. Azken emaitza, beraz, 4 eta 1 etxeko taldearen alde. Garaipen horri esker sailkapeneko azken tokietatik atera da Arrasate eta datorren astean, eurak baino atzerago dagoen aurkariarekin jokatuko du, Union Txikiren aurka. Hori dela eta, erronka errazagoa izango dute. Izan ere irundarrak 10 puntu atzetik daude..

Etxean bestalde bost partida jokatu dira asteburuan.

## ESKUBALOIA Kopan galdu



Gazte mailako eskubaloitaldeak Gipuzkoako Kopako lehen partida jokatu zuen asteburuan baina arrasatearrek ez zuten modu onean hasi, galdu egin zuten eta Elgoibarren aurka. Neurketa ez zen erraza. Aurkariak igoera aldia jokatu du eta arrasatearrek, berriz, mailari eusteko partidak dituzte aurretik. Etxekoak ondo aritu ziren eta entrenatzailea pozik gelditu zen egindako lanarekin. Lehen zatian 6 eta 10eko emaitzarekin amaitu zuten eta bigarrenean elgoibartarrak. Etxekoek defentsa estutu zuten eta tartea txikitzea lortu zuten. Azkenean, ordea, 14 eta 19 amaitu zen neurketa.

Aste honetan Bergaran dute neurketa, Kopako bigarren partida.

## Emaitzak

### SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Transportes Lesaca Calasancio 79 - Kenci Arrasate 67
- **Kadeteak:** CD Internacional 33 - Kenci Arrasate 51

### PILOTA

#### Debarroko txapelketa

- **Kadete maila:** Arrasate 22 - Aretxabaleta 8
- **Gazte maila:** Arrasate 22 - Aretxabaleta 12
- **Seniorrak:** Arrasate 19 - Aretxabaleta 22

### ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate 35/36 - Getxo 10
- **Gazteak:** Universitarios 19 - Arrasate 7
- **Kadeteak:** Durango 64 - Arrasate 0

### FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:** Urola 1 - Mondra 0
- **Ohorezko gazteak:** Hondarribia 3 - Mondra 0
- **Bigarren gazteak:** JAI
- **Ohorezko kadeteak:** Ondarruko Aurrera 2 - Arrasate 0
- **2. kadeteak:** Arrasate 2 - Eibartarrak 1
- **Infantilak:** Arrasate 4 - Tolosa 1
- **Neskak:** Ilintxa 0 - Mondra 0

### ESKUBALOIA

- **Kadete:** Arrasate 10 - Bergara 16
- **Gazte maila:** Arrasate 14 - Elgoibar 19
- **Seniorrak:** Mutriku 14 - Arrasate Almen 22

## Jokatzekoak

### SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate - Durangoko Tabira
- **Juniorrak:** San Benito - Kenci Arrasate
- **Kadeteak, mutilak:** Kenci Arrasate - STL Azkuze (ostirala, 19:30)

### PILOTA

#### Udaberri txapelketa

- **Lehen urteko kadeteak:** Añorga - Arrasate
- **2. mailako kadeteak:** Altza - Arrasate

#### Debarroko Txapelketa

Arrasate - Bergara (asteartea)

### ERRUGBIA

- **Hiru taldeek** JAI

### FUTBOLA

- **Lehen errejioanala:**

Mondra - Pedrusko (larunbata, 16:45)

- **Ohorezko gazteak:** Mondra - Santo Tomas Lizeoa (igandea, 12:00)
- **Bigarren gazteak:** Arrasate - ST Lizeoa (igandea, 09:45)
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate - Ilintxa (larunbata, 12:15)
- **Infantilak:** Union Txiki - Arrasate
- **Neskak:** Mondra - Almen (igandea, 16:45)

### ESKUBALOIA

- **Kadete:** Beasain - Arrasate
- **Gazte maila:** Bergara - Arrasate
- **Seniorrak:** Arrasate Almen - Tolosa (igandea, 12:00)



# Pilotak probatzera Uarkapera

Ostegunean sinatu zuten Aspe eta Asegarce enpresek pilota jaialdietako hitzarmena Arrasateko Udalarekin. Joan den astean kontatu genizuen zeintzuk izango diren jokatu diren partidak. Lehenengoa martxoaren 25ean izango da. Buruz buruko txapelketako bigarren norgehiagoka, hain zuzen ere. Hori dela eta, asteartean Patxi Ruiz eta Jorge Nagore izan ziren Uarkapen pilotak probatzen. Datorren asteazkenean, hilaren 22an, Jokin Errasti eta Patxi Ruiz etorriko dira buruz buruko txapelketarako pilotak probatzera. Eguerdiko 12:00etan izango da eta aurretik Asegarce pilota enpresak aurtengo den-



Patxi Ruiz eta Jorge Nagore, Uarkapen.

boraldian erabiliko dituen Astore etxeko jantziak erakutsiko ditu.

Eguerdian bazkaria egingo dute eta arratsaldean aterako da argazki ofiziala.

## Finalerako bidean

Udaberri txapelketan bikarin aritu dira herriko pilotariak. Aste honetan esaterako, finalerdietako bigarren partida jokatu dute Uribarren eta Jimenezek eta Zuazuak eta Agirrek.

Lehenengok, Añorgaren aurka jokatu dute joan den astean 22 eta 13 irabazi zieten Altzakoei. Lehen urteko kadeteek, berriz, Uribarrenek eta Jimenezek ere irabazi egin zuten Añorgaren aurka. 22 eta 17 gailendu zituzten Añor-

gako Uribarren eta Jimenezek.

### FINALA

Aste honetan, beraz, finalerako txartela lortu dezakete bi bikoteek. Larunbatean, arratsaldeko 16:00etan Uribarren eta Jimenez arituko dira añorgarren aurka. 18ra geldituz gero finalera pasako dira.

18:30, berriz, Altzakoen aurka arituko dira Zuazua eta Agirre pilotariak. Hauek 14 tantu egitearekin nahiko izango dute finalera pasatzeko.

## Denboraldia abian

Joan den asteburuan ekin zioten JMAko txirrindulariek denboraldiari. Lehen urteko kadeteak Azpeitin izan ziren; Mikel Arregi 21., Jon Racionero 26. eta ondoren Mikel Arana helmugaratu zen. JMAko bigarren urteko kadeteak Beasainen estreinatu ziren. 81 txirrindularietatik Iñaki Juldain seigarren izan zen eta Aitor Elortza hamargarren.

Aste honetan JMAko bi taldeak Lazkaora joango dira.

## Euskal selekzioa

Arrasateko gazte taldeko jokalar bat, Mikel Kerejeta, Euskal Herriko selekzioarako aukeratu dute. Plentziara joango da martxoaren 19an. Eibarren aurre aukeraketa egin zuten eta orain kontzentrazioa joango da, Euskal Selektzioaren pilier bezala.

## Zuzendaritza berria

San Andres Xake taldeak zuzendaritza berria aukeratu zuen joan den astean. Josu Tornay da lehendakari berria. Idazkaria Eugenio de Andres eta diruzaina, Txema Hernando. Zuzendaritza Roberto Andresek, Manuel Nafarretek eta Jabier Axpek osatzen dute.

Zuzendaritzaren lehenengo lana egoitza berriaren gestioaz arduratzea izango da. Izan ere, taldean gero eta kide gehiago dira eta dagoeneko "San Andreseko egoitza ez gara kabitzen". Horrez gain, taldearen armarria ere berrituko dute.



ARRASATE  
KIROLAK

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleentzako arzteko zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saloan, sari mundiala etxeratzeke.

Aurreko asteko erantzuna: Arrasate-Kenci saskibaloi taldeak web orrialdea dauka interneten.

Galdera: Bigarren mailako zenbat futbol talde janzten ditu Astorek?

Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: ..... Tel.: .....

# Denen gusturako ekintzak



Asteburu honetan Arrasate Kirol Projektuko haurrek denetik egiteko aukera izango dute. Pilota, igeriketan eta ohiko kirol hitzorduak izango dituzte.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrek, pilota jaialdia izango dute Uarkapen Udal Pilotalekuan. Larunbatean goiz osoan zehar arituko dira hantxe. Arduradunek hainbat txoko prestatuko dituzte eta bakoitzean joku bat egin ahal izango da.

## ✌ IGERIKETA

Gazteenek uretan ibiltzeko aukera izango dute. Igeri egiten ikasteko jokoak prestatu dizkiete begiraleek kiroldegian.

## ✌ INFANTILEN EMAITZAK

AKPko saskiabaloi taldeko neska-mutikoak jokalaririk finak direla erakutsi dute. Neskek ez dute lortu, baina mutilak, Gipuzkoako txapelketarako finala jokatuko dute.

Aurreko astean aipatu



bezala, saskibaloiko neskek eta mutilak Gipuzkoako Txapelketarako txartel bila ari ziren.

Neskek, euren bigarren partida irabazi zuten, baina ez dute sailkatzea lortu. Mutilek berriz, bai. Finalerako txartela lortu dute AKPko saskibaloiko mutikoek.

Asteburu honetan euren arteko finala izango dute eta bertan erabakiko da Gipuzkoako txapelketara joango den taldea zein izango den.

## Asteburuko hitzorduak Martxoak 18, larunbata

### ✌ PSIKOMOTRIZITATEA IGERIKETA

Musakola

- 09:45 Aramaio  
Erguin  
SFX (S. Teresa)  
SFX D
- 10:45 La Merced A  
SFX U  
SFX A  
S. Viator C  
S. Viator A
- 11:45 Musakola  
SFX B  
SFX C  
S. Viator B  
La Merced B

### ✌ AURREKIROLA ESKU PILOTA JARDUNALDIA

Uarkape pilotalekua

- 10:00 - 11:30 4. mailakoak
- 11:30 - 13:00 3. mailakoak

### ✌ MULTIKIROLA NESKAK

Jturripe

- 10:15 SFX A - S. Viator A
- 11:00 S. Viator B - La Merced
- 11:45 SFX U - Erguin

### MUTILAK

Jturripe

- 09:30 SFX U - S. Viator B  
S. Viator C - SFX C
- 10:15 La Merced - SFX B
- 11:00 Aramaio - Erguin
- 11:45 S. Viator A - SFX A

### ✌ INFANTILAK SASKIBALOI MUTILAK

S. Viator

- 11:30 Arrasate B - S. Viator

### FUTBOLA NESKAK

Atxabalpe

- 09:00 S. Viator - Elgeta
- 09:00 SFX A - Almen
- 10:00 SFX B - Aranzadi

### MUTILAK

Musakola

- 10:00 La Merced - Aranzadi

## Sailkapenak

### ✌ AURREKIROLA ARETO FUTBOL-eko TXAPELKETA

1. SFX A
2. SFX B
3. Merced
4. Aramaio
5. SFX E
6. SFX D
7. S. Viator B
8. S. Viator A
9. SFX C
10. SFX U (3. maila)
11. SFX U (4. maila)
12. Musakola
13. Erguin
14. Musakola



Erguin A aurrekirola taldea.



SFX C Aurrekirola taldea.

MIKEL ARGOTE (ALGARA ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA)

## “Jendeari barre eragitea oso pozgarria da”

Eguneroko bizitzan, Bombas Itur enpresako administradorea da Mikel Argote. Baina astean behin, 39 urteko zarautzar hau antzezle eta zuzendari bihurtzen da. Bihar emango digu bere zaletasun honen adibide bat, Algara taldeak, *Un follón de testamento* komeria taularatuko baitu Amaian, 22:00etan. Jasotzen duen dirua Mozambikera bidaliko da.

—Noiz eta nola sortu zen Algara taldea?

—1987.ean, Zarautzeko drogaren aurkako talde batek dirua ateratzeko antzerki saio bat egitea erabaki zuen. Ni beti izan naiz oso antzerki zalea, eta taldekoek niregana jo zuten laguntza eske. Iragarkiak ipini genituen eta jendea agertzen hasi zen. Hasieran emanaldi bakarra egitea zen asmoa, baina beste herri batzuetako antzeko taldeek ikusi egin zuten eta euren herrietan antzeztea eskatu ziguten. Hor hasi ginen.

—Nortzuk osatzen duzue taldea?

—Hogei bat lagun gara. Bakoiitzak bere lana du: ni, adibidez, administradorea naiz, eta badaude irakasleak, dendariak... Ez gara aktore profesionalak, antzerkizaleak baizik.

—Zaila izango da lana eta zaletasunaren arteko oreka lortzea, ezta?

—Bai, nahiko zaila. Astean behin, gaueko 22:00etan elkartu behar izaten dugu entsaiatzeko. Baliabide larregi ere ez dugu. Baina tira, baditugu ordainak ere. Jendeari barre eragitea oso pozgarria da. Gero eskertu egiten dizute: etorri izan zait jendea eguna



*Un follón de testamento* antzezlanean.

animatu diegula eta, eskerrak ematen.

—ONGekin elkarlanean ibiltzen zarete beti?

—Bai. Talde askok deitzen digute: Azkoitiko elbarrituen aldeko talde batekin, Elgoibarko Hiesaren aurkako beste batekin, Venezuelen umezurtzategia daraman Zumaiako jesuita batek ere deitu digu... Kalkutako Ama Teresa bezalakoak gara ia-ia.

—Beti komeriak antzezten dituzue?

—Bai, horrek badu bere alde ona: jendeak hain ondo pasatzen duenez, lagunei joatea gomendatzen diete, eta herri horretara bueltatzen garenean, antzokia bete egiten da. Arrasatearrak etortzera animatu nahi ditut. Primeran pasako dutela ziurtatzen diet.

“Arrasatearrak etortzera animatu nahi ditut. Primeran pasako dutela ziurtatzen diet”

### aste gazte

#### ■ TXARTELAK

• Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemen-dik aurrera Gazte Bulegoan.

#### ■ GAZTEAK LANKIDETZAN

• Herri erakundeek eta GKE-ek Hirugarren Munduan aurrera daramatzaten lankidetzatza programetan parte hartzeko aukera daukazue, 20 urte baino gehiago eta 31 baino gutxiago duzuenek. Udako hilabeteetan izango dira egonaldiak. Epea: apirilak 4.

#### ■ UDAKO EKINTZAK

• Martxoko azken astetik aurrera hasiko dira programa ezberdinak aurkezten (auzolandegiak, udalekuak, udako ekintzak...).

#### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Estatu espainiarreko Hezkuntza Ministerioak, ingeles eta frantses ikastaroak egiteko dirulaguntzak aurrekusi ditu, aurtengo ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza orokorra jaso dutenei zuzenduta. Epea: martxoak 31.

• “Censolar” en eskutik, eguzki energia instalatzaile titulua ateratzeko diru laguntzak. Epea: apirilak 30.

#### ■ LANA

• Aretxabaletako Udalerako kontuhartzaile teknikaria behar da. Epea: martxoak 20.

• Errenteriako Musika Eskolarako musika irakaslea behar da, dantza espezialitatean. Epea: martxoak 27.

#### ■ LEHIAKETAK

• Zumarragako Udalak, bertako festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatuta du. Epea: maiatzak 12.


Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

# Euskara, jalgi hadi sarera!

Ingelesa jaun eta jabe da Interneten, baina euskara ere badao bere txokoa zabaltzen. Hilabete honetan bertan, bultzadaxo bat eman dio Eusko Jaurlaritzak, euskararen inguruko informazioa zabalduko duen internet gune bat zabaldu baitu bere Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak. Edukiz bete dago gunea: euskararen historia, bilakaera, legea, hizkuntza politika, herrien izenak, argitalpenak, hiztegiak eta agenda, besteak beste, kontsultatu daitezke. Helbidea ondokoa da: [www.euskadi.net/euskara/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/euskara/indice_e.htm).

## ARRASATEKO ARTEA

Eta euskal hizkuntzaz gain,



Poliki poliki, euskara ari da interneten bere tarte egiten.

euskal arteak ere badu bere tokia sarean. Orain dela gutxi Luis Jabier Arrieta margolari arrasatearrari tarte bat eskaini dio bere webgunean Eusko Ikaskuntza erakundeak. Euskal kultura eta artea bul-

tzatzea da asmoa. Luis Jabier da interneten dagoen lehen artista arrasatearra. Ondoko helbidean daude ikusgai bere lanak: [www.eusko-ikaskuntza.org/euskonews/artaretoa/ljarrieta/index.html](http://www.eusko-ikaskuntza.org/euskonews/artaretoa/ljarrieta/index.html).

# Hobeto bizitzeko aholkuak

Gaur egungo bizitzarekin lotutako gaiak kontsumitzailearen ikuspegitik eztabaidatzeko asmoarekin, lau hitzaldi antolatuta ditu Eroski Fundazioko Kontsumitzaile Eskolak. Hitzaldi bakoitzean arazo mota bat landuko da. Horietako bi aste honetan eskaini dira, eta beste biak hilaren 22an eta 23an eskainiko dira. 22an, gaixotasun kardiobaskularrak eta hipertentsioa landuko ditu Alberto Rodriguez medikuak, eta 23an, bizkarra zaintzeko aholkuak eskainiko ditu Ama-goa Muruamendiaraz sendagileak. Monterronen izango dira hitzaldi denak, 16:30etan.


## Emakumeen Eskuak



Emakumearen Eguneko oihartzunak entzuten dira oraindik. Egun handia 8a izan zen arren, hilabete osoan ditugu hainbat ekintza. Horietako bat Harresi aretoan Emakumearen Egunean bertan zabaldu zen eta oraindik ikusgai dagoen "Emakumeen Eskuak" erakusketa dugu. Herriko emakumeen eskuek egindako lanez bete dira Harresiko txoko guztiak. Arte eta artisautzako adibide bikainak ditugu

hauek. Erakusketa gauzatzeko, ondoko taldeek hartu dute parte: Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroak, Beni Uzkianoren tailerrak, Mari Jose tailerrak, Ekin Emakumeak taldeak, Gargartza eta Gesalibar auzoek, Monterroneko margo taldeak eta Musakolako elkarteak. Ontziak, pitxarrak, panpinak, kaxak, koadroak... denetarik dago Harresi aretoan, eta domekara arte izango duzue ikusteko aukera.

## Arte plastiko erakusketa Gure-Lekun



Nork dio tabernak eta artea ezin direla batera joan? Otalora kaleko Gure-Leku tabernak bateratze hori posible dela erakusten digu. Bertako paretetan daude zintzilik II. Espacio-Libre-Tecnica arte plastiko lehiaketan parte hartzen duten 22 lanak. Denetariko teknikak erabili dituzte artista hauek espresio plastikoari bide emateko: oleoa, akrilikoa, serigrafia, argazkia, eskultura, ordenadore bidez lortutako irudiak...

Kolorea, originaltasuna eta talentua ugari biltzen dituzte Gure-Leku adorna-tzen duten artelan hauek. Eta hori da, hain zuzen, tabernako arduradunek nahi dutena: lehiaketa honen helburuetako bat arte jardueraren dinamizatzea eta kanpora ateratzea da. Eta nork egingo du ondoen? Hori publikoak erabaki beharko du. Bozketaren bidez aukeratu-ko da irabazlea, eta 125.000 pezetako saria eskuratuko du, apirilaren 9an.

## irakurle eta entzule

Iturria: Eya

### diskoak

#### TOM JONES

Reload (Gut Records), 3.100 pezeta



Tom Jones abeslari gales-tarrak ez du sekula ukatu bere buruaren eta, batik bat, bere ahots ahaltsuaren duen konfiantza.

Baina kontuz, konfiantza hori ez da harropuzkeriatan dabilzanena, talentua dutela dakitenena baizik. Izan ere, hitzetan baino, ekintzetan irakutsi digu Jonesek zertarako gai den. 60 urte inguru ditu eta oraindik miresmena sortzen du bere indar agortezinak. Eta gazte denborako jarraitzaileek hor segitzen duten arren, oraingo gazteak ere erakarri nahi ditu, galestar honek. Hori dela eta, *Reload* diskoa plazaratu du. 17 kanta batzen ditu, bakoitza beste artista batekin grabatua: *The Cardigans*, *Simply Red*, *Van Morrison*... *Tom Jones* bizi-bizi dakarren disko ona da hau.

### liburuak

#### BARANDIARAN

Biografia

Jon eta Jexux Aizpurua  
157 or., pta



Elkarlanean argitaletxeak kaleratu duen 11. biografia da hau. XX. mendeko Euskal Herrian eman duen kultura gizonik handiena hobeto ezagutzeko egokiera ematen digu liburuak.

Oso ondo idatzita dago: erraz, esaldi motzekin eta argi. Nabaritzen da, gainera, egileek lehen eskuko lekukotasunak erabili dituztela biografia tajutzeko.

Eserialdi batean irakur daiteke. Ez harritu Barandiaran hobeto ezagutzeko gogoz geratzen bazara.

Liburu erabat gomendagarria.

## asteko filma



### El Sexto Sentido

(The Sixth Sense), EEBB 1999. Beldurrezkoa.

Zuzendaria: M. Night Shyamalan.

Aktoreak: Bruce Willis, Haley Joel Osment, Toni Colette.

#### HARIA

Malcolm Crowe haur psikologoak bere gaixotako batekin porrot egiten du, eta hori gainditu nahian, Cole Sear umeari laguntzen saiatuko da. Coleren arazoa ez da nolanhikoa: hildakoez berarengana jotzen dute laguntza eske.

#### KRITIKA

Bere jeneroan ezohiko filma dugu *El Sexto Sentido*: dotorea, sotila eta misterioari eusten dakiena. Izan ere, sus-to pare bat izan arren, beldurrezko filma baino, bakardadeari eta komunikazio faltari buruzko parabola galanta dugu. Pasa den zinema guztietan izugarritzko arrakasta izan du, eta ez da harritzekoa, ondo planteatutako eta ondo landutako istorioa kontatzen baitu. Aktoreek ere lan bikaina egiten dute, batez ere Haley Joel Osment haurrak, Oskarrerako izendatua dagoenak. Goi mailako lana.

## asteburuan zer

### kontzertuak

#### FLAMENKOTIK ROCKERA

Espainiako talderik pertsonalenetariko bat dugu asteburuan Jam aretoan: *Martires del Compas* taldea. Euren estiloaren sustaia flamenkoan duten arren, ez diote beste inongo doinuri uko egiten: billyak, rockak, rapak eta bossak aberasten dituzte Martiresen doinuak. Aintzinako kantaoreen ondarea jaso eta buelta ematea izan da talde honen meritu handia. Umorea, maitasuna, sakontasuna eta protagonista egiazko pertsonak dituzten eguneroko kontuak josten dizkigute euren abestiek. Kaleko hizkuntzan berba egiten du euren musikak, eta horregatik, zuzenki ukitzen du entzulea. Bergarako Jam aretoan, 22:00etan.



Aste honetako irabazleak: SA eta Eraso Kontzerturako Loiola Madera, Pablo Arroyo eta Dabid Deogracias. *Martires del Compas*: Iosune Ribera Izurrategi, Itziar Benavent Artetxe eta Eider Otxoa Inda.

## kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO  
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.  
Martxoak 24: **The Peepshows** eta **Art. Gomb**  
Martxoak 26: **Ibon Serrano + David** eta  
**Maribel** kantautoreak

Egun bakoitzerako **3** sarrera  
zozketatzen ditugu.

Izen-deiturak: .....

Tel.: ..... Eguna: .....

Bidali gurera: Arrasate Press, Otxalora 31

# ATB

## Programazioa

### OSTIRALA, 17

- 13:30 **Albiste aurrerapena**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza**  
 Alberto Elorza Zelai  
 Zabaleko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat:  
 zainzuri berdeen krema  
 babatxoekin.  
 13:50 **Zortziko Txikian**  
 (errepika).



Anartz Agirre.

- 20:00/20:30/21:00 **Berriak**.  
 21:30 **Astebete**.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**.  
 22:15 **Soinuz Blai**. Miren  
 Gonzalezekin.



Miren Gonzalez.

### LARUNBATA, 18

- 13:30 Asteko saioen errepika:  
**Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Zortziko Txikian, Astebete.**

### IGANDEA, 19

- 13:30 Asteko saioen errepika:  
**Jolasplast, Gatza eta Berakatza, Hamaika Magazin, Zortziko Txikian, Astebete.**

### ASTELEHENA, 20

- 13:30 **Albiste aurrerapena**.  
 13:40 **Gatza eta Berakatza**.  
 Edurne Izarzelai  
 Dukiena jatetxeko  
 sukaldariak prestaturiko  
 plater bat: penka beteak  
 tomate saltsan.  
 13:50 **Astebete** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak**.  
 21:30 **Mondrasport**.  
 22:35 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).

### ASTEARTEA, 21

- 13:30 **Albiste aurrerapena**.  
 13:35 **Gatza eta Berakatza**  
 Aitor Aizpurua Iturritxo  
 jatetxeko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat:  
 almeja eta endibia  
 nahaskia.  
 13:50 **Mondrasport**.  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak**  
 21:30 **Hamaika Magazin**.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**.  
 (errepika).

### ASTEAZKENA, 22


- 13:30 **Albiste aurrerapena**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza**  
 Jose Ignacio Lasa  
 Bergarako batzokiko  
 sukaldariak prestaturiko

plater bat: txanpiñoi  
 nahaskia.

- 13:50 **Hamaika Magazin**  
 (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak**  
 21:30 **Aurrez Aurre** (errepika).  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).

### OSTEGUNA, 23

- 13:30 **Albiste aurrerapena**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza**  
 Mari Karmen Telleria  
 Oñatiko Garoa jatetxeko  
 sukaldariak prestaturiko  
 plater bat: entsalada  
 epela.  
 13:50 **Aurrez Aurre** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak**.  
 21:30 **Musiklasik**. Iñaxio  
 Olaizolarekin.



Iñaxio Olaizola.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).  
 22:15 **Soinuz Blai**. Edu  
 Abasolarekin.

### OSTIRALA, 24

- 13:30 **Albiste aurrerapena**.  
 13:40 **Gatza eta Berakatza**.  
 Igor Ezpeleta Elizondo  
 jatetxeko sukaldariak  
 prestaturiko plater bat:  
 gazpatxoa.  
 13:50 **Musiklasik** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak**.  
 21:30 **Astebete**.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).  
 22:15 **Soinuz Blai**. Edu  
 Abasolarekin.



Edu Abasolo.

## Gatza eta Berakatza

PLATERAK: Sarrerakoak

NOIZ	PLATERA
Astelehena 20	Penka beteak tomate saltsan.
Asteartea 21	Almeja eta endibia nahaskia.
Asteazkena 22	Txanpiñoi nahaskia.
Osteguna 23	Entsalada epela.
Ostirala 24	Gazpatxoa.

## Maria Agirre

Martxoaren 8an goi mailako politiko talde bat zuzendu behar izan zuen. Ezker-eskuin Joseba Egibar, Jose Luis Elorza, Gorka Knörr, Joseba Permach eta Ricardo Ortega izan zituen. Miurak izan barik ere, errespetoa eragiten duen taldea, zalantzarik gabe. Hala ere, Mariak ondo toreatu zituen.

Matxoaren 12an, "Hauteskundeak 2000" saio berezia zuzendu zuen, Mikel Irizar eta Mikel Lezamiz zituela ondoan. Hiru ordu eta laurden zuzenean, bailaran izandako emaitzen berri emanaz. Emaitzak, elkarrizketak, iruzkinak... dena zuzenean eta txukun. Mariak neurria hartu die horrelako saioei. Iaz ere berak zuzendu zuen udal hauteskundeei buruzko programa.

Ia zortzi urte daramatza lanean kazetari moduan. Ikasketak amaitu bezain laster, *Arrasate Pressen* eta ATBn

hasi zen lanean. Lau urte eta erdi egin zituen hemen.

ATBn gustua hartu zion telebistari. Lau programatan ibili zen nola edo hala sartuta. *Astebete* aurkeztu zuen, astean zehar gertatutako albiste inportanteenen berri emanaz. *Munduari Buelbaka* ere aurkeztu zuen, inguruko bidaiarien esperientziak jakinaraziz. Baita *Kaleidoskopioan* ere, magazinaren hainbat atal aurkeztuz.

Gero Donostiara joan zen, Eusko Ikaskuntzara, Eusko-news & Median lan egitera. Kazetaritza lanak egiten ditu han, irratirako eta Interneten plazaratzeko elkarrizketak eta bestelako lanak. Hori dela eta, dezentz ibiltzen da Euskal Herrian barrena, albisteen bila. Horregatik edo, asteburuetan gustura etortzen da Aretxabaletara, lagunekin-eta egon eta atsedena hartzera.

Maria Agirre da, 30 urteko kazetari aretxabaletarra.



Maria Agirre.

## Xabier Urzelai



21 urte bete zituen Xabier Urzelaiak, ARKoko kazetari gazteenak.

Urtebete falta zaio kazetaritza ikasketak amaitzeko, hirugarren kurtsoan baitabil, baina ez du zalantzarik egiten: "ATBn egin ditudan zazpi hilabeotan gehiago ikasi dut unibertsitatean zortzi urtean ikasiko nukeena baino".

Irailean sartu zen ATBn. Hasieran bekadun gisa, baina asteburuetak kirolak lantzea eta Mondrasport saioa Itxaro Zubillagarekin batera aurkeztea proposatu zitzaionean, braustesan zuen baietz: "horrelako aukerak ezin dira galdu".

Mondran eta UDAn jokatu izan du futboleak. Beraz, badaki zertan ari den futbol partidak aztertzen dituenean. Futbolaz gain, beste kirol batzuk ere lantzen ditu: eskubaloia, saskibaloia, errugbia...

Asteburuero hiru-lau partida landu behar izaten ditu: zelaira joan, grabatu, oharrak idatzi, elkarrizketak egin... Atxabalpen, Garagartzan, Musakolan, Iturripen, Uarka-

pen... Inoiz tokatu izan zaio bi partida batera ikusi beharra: baten hasiera ikusi, kameralaria han utzi, bestera joan, berriz itzuli... halako batean pott egiteko moduko bizimodua, baina gustatzen zaio.

Astelehenean, berriz, testuak idatzi, telebistan agertu behar diren irudiak aukeratu, ahotsa sartu eta! Mondrasport prestatu. Horixe egiten du, harik eta Itxaroren ondoan jartzen den arte. Hasieran fokokek errespetoa ematen zioten, baina aspaldi gainditu zuen hori. Orain gustura dabil eta konfiantzaz.

Maidar Osa etorri ezinean izan zen batean Berriak saioa aurkeztea tokatu zitzaion. Eta hor ere airoso! "Ez pentsa, hori oso bestelakoa da, ezin da hutsik egin", esaten du hala ere.

Lan asko egin du Xabierrek azken aldi honetan, beste lan-kide baten gaixoardian. Bere urtebetetze egunean lasaia ibili zen, ordea. Zorionak!



# Danona

KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua

**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## ETXEBIZITZAK

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Benidormen, Plaza de Levanteren aurrealdean. Tel.: 946 80 09 53. Marisa.

• Gela bat alokagai. Tel.: 677 71 90 03, Eder. 636 92 07 86, Iñaki.

• Etxea alokagai Unqueran (Kantabrian) asteburu, Aste Santu eta udarako. Tel.: 942 33 57 80.

• Etxebizitza alokagai Erdiko kalean. Tel.: 943 79 28 21. Denda orduetan.

• 3 gelatako etxea alokagai, Erdiko kalean. Tel.: 943 79 40 53.

• Etxebizitza alokagai San Andresen. 14:00 - 16:00 eta 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 17 25.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza alokatu nahiko genuke, 3-4 lagunentzat. Tel.: 943 77 03 36.

• Ikasle talde batek etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten, 3 edo 4 pertsonentzat. Tel.: 649 88 79 22. Eneritz.

• Gela bat alokatuko nuke. Tel.: 943 199062. Alazne. 21:00etatik aurrera.

• Ikasleak etxebizitza bila dabilta. Tel.: 616 55 03 18.

### 5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Zigarrolan. Tel.: 617 72 47 83.

• Bi lagun behar dira martxotik aurrera etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 16 54.

• Aretxabaletan etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Tel.: egunez, 943 74 80 00. Iluntzean, 943 77 18 72. Amaia.

• Gela bat dugu alokagai etxebizitza batean. Tel.: 629 06 38 63 eta 606 87 26 82.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

• Roneo Biterin garajea salgai. Tel.:

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

943 79 46 88.

### 9. Errentan emateko

• Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Taberna salgai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko lokaia salgai. Tel.: 943 79 18 70.

• Ferrerias 42an 25 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Prezio berezia. Tel.: 943 78 12 32

### 14. Errentan emateko

• Taberna alokagai Arrasaten, Udalpe kalea, 6. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 43 77.

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Gaixotasunagatik ezin dut atenditu. Tel.: 626 37 93 66.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Era guztietako lanak eta apunteak ordenadorez pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

• Neska asteburuetan tabernari lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 42 54.

• Esperientziadun neska prest etxeko garbiketarako orduka egiteko, umeak zaintzeko edo beste lanen bat egiteko. Tel.: 943 79 69 66. Ainhoa.

• Medikuntzan lizentziatua gaixo nahiz pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 943 79 08 21.

• Enpresa zientzietan lizentziatua edozein lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

### 18. Eskaerak

• Neska euskalduna behar da arra-

tsaldez denda batean lan egiteko. Bidali datuak 258 posta kutxatilara.

• Zerbitzari euskalduna eta garbitasuna eramango duen pertsona behar dira jatetxe batean asteburuetan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

• Azokan lan egiteko laguntzailea behar da. Interesatuak deitu 619 21 91 72 telefonora.

• Aramaioko gastronomi elkarte baterako garbitzailea behar da. Tel.: 945 44 52 15.

• Emakume bat behar da jatetxe batean garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 79 24 58.

• Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Emakumea behar da bi neskatila zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona euskalduna behar dugu sagardotegi batean zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 945 44 53 85. Juanjo.

• Bi zerbitzari behar dira. Bat tabernarako eta bestea jangelarako. Komenigarria litzateke automobila edukitzea. Tel.: 943 76 50 99.

• Zerbitzari lanak egiteko pertsona bat behar da, hobe esperientzia badauka. Tel.: 943 77 17 97.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

• Ingelesezko eskola partikularrak ematen ditut, maila guztiak. Tel.: 943 77 08 69.

### 21. Eskaerak

• Gorren hizkuntza edo LS dakien norbait behar dut praktikatzeko. Tel.: 607 31 02 66. Sonia.

• DBHko 3. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 96 69.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• 50 cc-tako motorra salgai. Bi urtetakoa, eta ia berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 09 31.



• Opel Astra GSi 2:0 autoa salgai. 115 zaldi, zuria. 1993koa. Tel.: 943 77 09 23. Roberto.

• Trial motorra Gasgas salgai, 250 cc-takoa. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Motorra salgai. Suzuki GS-500 E, karenatua eta faro bikoitza. 25.000 km., aseguruia maiatzera arte, estrak, oso egoera onean. Tel.: 943 79 59 71. Mikel.

• Citron Xsara 2000 vts 16 v, SS-BG salgai. Tel.: 943 79 64 48. Jon.

• Nissan Vanette Coah salgai. 76.200 Km. 200.000 pta. Tel.: 943 79 69 14.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Solarium APRO markakoa salgai, egoera onean. Tel.: 943 76 51 76. Leire.

• Emakumezkoen mendiko bizikleta, berri-berria salgai. 3 plater eta 6 pinoi. BH markakoa. Tel.: 943 79 96 37.

• Bi mostradore eta apala metalikoak salgai. Tel.: 666 95 79 83.

• Bigarren eskuko teklatura, Yamaha Portatone (PSR-200) elektronikoa, salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 93 07.

• Ehiza txakurra salgai. Oso ona. Tel.: 943 79 73 65. Jabi.

• Karro denda berri-berria salgai, bi hilabetez erabilia. Bi ohe, egongelatua. Tel.: 94 78 70 74.

### 27. Erosi

• Mundu guztiko txanponak erosi, saldu edo aldatuko nituzke. Tel.: 943 79 54 55. Mikel. 20:00etatik aurrera.

• Diskoak, singelak eta LPak eros-ten ditut. Tel.: 943 52 65 77. Jose Luis.

• Diskoak eta LPak erosiko nituzke. Tel.: 943 79 76 90.

### 31. Galdu

• Otalora kaleko farola baten ondoren tenazak galdu zitzaizkidan, kirtenak gorri kolorekoak dira. Tel.: 943 46 53 56.

• Urre zuriko erraztun bitxiduna galdu zait. Balio sentimental handiko da. Aurkitu baduzu, deitu mesedez, eskertuko dugu. Tel.: 943 79 23 17.

• Puntuzko txaleko gris bat galdu dut Iturriotz kalean. Tel.: 649 88 79 22.

• Zorro beltz batean bilduta zeuden giltza batzuk galdu nituen, Zigarrola aldean pasa den astean. Aurkitu badituzu, deitu 943 79 07 80 telefonoz.

• Inauteri domekan urrezko pultsera bat aurkitu nuen Arxabaletan. Tel.: 945 44 52 00, 20:00etatik aurrera. Laneko Tel.: 943 71 92 00.

### 33. Bestelakoak

• Dieta pertsonalizatua Nutrikare-

kin. Tel.: 619 32 62 27.

### 32. Aurkitu

• Urrezko katea dominarekin, lñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Arrasate Pasealekuko "Bolintxo" okindegiaren inguruan, montura metalikoa eta koloreko kristalak dituzten betaurrekoak aurkitu nituen orain dela aste batzuk. Tel.: 943 79 47 56.

• Udalara bidean giltza batzuk agertu dira. Jabeak Larrinetxe tabernan jaso ditzake. Tel.: 943 79 22 15.

## HARREMANAK

### 35. Kontaktuak

• Zaldia baduzu eta neurea zaintzeko aukera baduzu, tratu batera hel gaitzke. Tel.: 943 79 21 86. Jone.

• Garibai eta Biteri etorbideko bidegurutzean izandako istripu batean lekukoak behar dira. Istripua otsailaren 2an izan zen, Citroën Xsara gris batek eta Seat Ronda zuri batek elkar jo zuten. Norbaitek zerbait ikusi bazuen, deitu 943 81 13 26.



# Argazkigintza ikastaroa

- ASA elkartearekin elkarlanean
- Hastapen maila. Teorikoa eta praktikoa
- Apirilaren 1etik ekainaren 3ra arte.
- Larunbatetan 10:30 - 13:30
- Matrikula: 5.000 PTA (ikasle eta langabeentzat 3.000 PTA)
- Plaza mugatuak.

Izen ematea Gazte bulegoan. Tel.: 943 77 00 65

Gazteria saila ■ ARRASATEKO UDALA



**Z**arugalde kalea, berez txikia izan arren, Mondragoerentzat esanguratsua da oso. Zar (zahar), Ugal (garoa) eta Alde (leku) hitzek osotzen dute kalearen izena.

Aspaldiko kontuek diotenez, hantxe bizi ziren ijitoak eta amerikarrak; hantxe zeuden Monterron jauregia eta "Garaipenaren Arkua" ere. 1950.

hamarkadako argazki honetan ikusten den pasabideari esaten zioten Garaipenaren Arkua.

Pasabide hau San Agustín komenturena zen eta moja agustindarrak bizi ziren bertan. "Garaipenaren Arkua" delakoa, komentutik ortuetara joateko erabiltzen zen.

Oso zaharra da San Agustín komentua. 1747ko idatzi

baten arabera, 1550. urtea baino lehenagokoa da. Arkua, berriz, 1790ekoa.

Komentua 1904. urtean itxi zen, osasun arrazoiengatik eta Mondragoetik Aretxabaletara joan ziren agustindarrak.

Mojek utzitako komentua etxebizitzetarako erabili zen ondoren. Gainera, Azkarate familiak San Agustín okindegia ireki zuen hortxe bertan. 1950.

hamarkadan itxi zen okindegia. Orain King's ileapaindegia dagoen tokian egon zen.

1984-85. urtean eraikin osoa bota zen.

-----  
**Argazkia:** Ion Iñaki Yarza.  
**Berriemaileak:** Ion Iñaki Yarza eta Jose Letonaren "Mondragon y sus Calles" liburua.



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# ALTZARIAK *eta* OPORRAK



alitatezko egurrez egindako gazteentzako altzariei dagokionez, azken berrikuntza aurkezten dizuegu.

### “Milenium”

modeloko altzari taldea erositara, astebukaera elurretan pasatzera gonbidatzen zaitugu.

Oraintxe bertan erosi eta 6. hilabetetik aurrera hasiko zara ordaintzen. 24 hilabetetan interesik gabe.

**TODO Mueble** **Kabia**  
DALLA DALLA



Bizitza erabakiz beteta dago.



Hobe bai, denak hain errazak balira.

Opel Corsa EDITION 2000

goragailu elektrikoarekin,  
gidagailu indartua,  
gidalariaren air-baga,

itxiera zentralizatu,  
6 bozgoragailudun irrati-kasseta,  
aleaziozko llantak eta atzealdeko spoilerrea.

1.300.000 pta. besterik ez\* / 7.813 euro

[www.opel.es](http://www.opel.es)

Opel Corsa Edition 2000 1.0 12v 3a. fabrikatzaileak gomendatutako P.S.P. Garraio, BEZa, matrikulazio zerga, promozio deskontua eta Prever Plana barne. Matrikulazio gastuak sartu gabe. Hilabete bukaera arteko eskaintza Penintsula eta Balear Irletan. Euro 1=166,386 pta.

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 79 05 86